

# aikor.

TDKIKOM

2026ko maiatza · #268



APURTUARTE

## Harrobiarekin, beste 100 urte



# ONDO PASA DERIOKO JAIETAN!



## TXEPETXA

Txorierriko *æk* Euskaltegia

**Ondo pasa jaietan!**

Eutsi *euskaraz* berba egiteko *konpromisoari*

*æk*

944 543 967  
607 59 87 94  
Gorbea kalea, 5 · Derio  
txepetxa@æk.eus



[www.peluqueriamolano.com](http://www.peluqueriamolano.com)  
**94 656 70 44 - DERIO**

## TAHONA URIBE

Okintzako eta opilgintzako labe propioa



Uribe kalea, 8  
944 545 267

Jata kalea, 2  
944 545 339

[uribetahona@gmail.com](mailto:uribetahona@gmail.com)



## Liliak Loradenda

*Ezkontzetarako lore arteko  
azken tendentziak eta klasikoak*

94 454 12 23  
[liliakloradenda.com](http://liliakloradenda.com)  
Erdiko kalea, 2 · DERIO



*electricidad derio* *elektrizitatea*  
Koadro elektrikoak • Instalazioak • Mantentzea

*Proiektuak eta  
material elektrikoaren salmenta*

Ugaldeguren ind. 1, 5 pab. 12 B DERIO  
t: 944 543 148

## Arteaga ESTANKOIA

Mungialde etorbidea, 12 - 48160 Derio  
Tel: 94 454 15 41  
[estancoderio@gmail.com](mailto:estancoderio@gmail.com)

# LAINOMENDI



## Gora Derioko jaiak!

Maiatzak 09 · 19:00 · Dantza-poteoa, Piperdun eta Kukudantza taldeekin  
Maiatzak 10 · 18:00 · Dantza-erakustaldia, Derioko enparantzan



# aikor.

**Argitaratzailea:**

**TOTOAN Txorierriko Euskara Elkartearen Federazioa** (Lagatzu, Zorritzetan, Altzora, Darabilgu eta Tximintx komunitatea)

**Zuzendaria:**

Xabier Goienetxe

**Erredakzio burua:**

Mikel Reina Barros

**Argazkiak eta maketazioa:**

Aner Mentxaka Alvarez

**Administrazioa eta publizitatea:**

Ruth Bilbao

**Kolaboratzaileak:**

Toti Martinez de Lezea  
Iñaki Eguskizaga  
Idoia Andres  
Xabier Diaz  
Mireia Soba Martinez  
Jone Goitisoló Uriarte  
Patricia Barron San Blas  
Iñaki Olabarrieta  
Jose Angel Mentxaka  
Estitxu Pérez Castro

**Albisteak:**

txorierrri@aikor.eus | 688 864 135

**Kudeaketa:**

aikor@aikor.eus | 747 406 561

**Administrazioa eta publizitatea:**

admin@aikor.eus | 688 782 642

**Inprimategia:** Gertu**Banaketa:** Pac publicidad**Ale kopurua:** 8.000**Lege gordailua:** BI 137-02 ISSN 1578-9322

**aikor aldizkariak** ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota iritzien erantzukizunik.

**CC BY-SA 3.0**

Aitortu - Partekatu Berdin 3.0 Moldatu gabea



## SUMARIOA

- 4 Iritzia
- 5 Berri laburrak
- 10 Zozketak
- 12 **Itxaso Marina**
- 14 **Aztarna taldea**
- 16 **Zamudioko jaiak**
- 18 **Txoriberri**
- 20 **Apurtuarte futbol taldea**
- 24 **Derioko jaiak**
- 28 Teknologia  
**Amesten al dute jeneralek Adimen Artifizialarekin?**
- 29 Sostengu sarea  
**Ikusten ez den mina**
- 30 EMAUS
- 31 Arrakala digitala  
**Aurrerapen teknologikoak medikuntzan**
- 32 Menditik patxadaz  
**Eskolunbe**
- 34 Herbarioa  
**Mitxoleta**
- 36 Sukaldaritza  
**Amama Sagraren karramarroak**
- 37 Denbora-pasak
- 38 Maiatzeko agenda



**Bizkaia**  
foru aldundia  
diputación foral

BIZKAIKO FORU ALDUNDIAK BABESTUTAKO HEDABIDEA



## IRITZIA

## Irakurtzen al dute gazteek?

**O**rain gazteek irakurtzen ez dutela esaten dute. Beno, ni gaztea nintzenean ere ez zuten irakurtzen, eta urteak joan dira! Nire kuadrillan hiruk bakarrik irakurtzen genituen liburuak, bi neskek eta mutil batek, eta hori garai hartan ez zeudela, orain bezala, mugikorrak, Ipad-ak, Internet, Instagram, Tik-Tok, Streaming, Youtube, Twiter, FaceBook, ezta denbora betetzen duten joko-plataforma, film eta musika ugari ere.

Liburuak, nobelak, olerkiak, komikiak, edo edonork nahi duena ere irakur daiteke Ebook-etan, audio liburuetan, Kindleen... Milioika daude eskuragarri, bai, milioika, izenburu mota guztietako irakurleen gusturako. Hala ere, gaira bueltatzen naiz: gazteek irakurtzen al

dute? Bada, baietz dirudi, edo hori adierazi dute, behintzat, 14 eta 24 urte arteko inkestatuen %70ek. Beste kontu bat da zeri deitzen dioten irakurtzea, baina hori dagoeneko gustuen kontua da.

Duela egun batzuk, liburu saltzaile batek esaten zidan paperezko liburuen salmenta izugarri jaitsi dela. Gehien saltzen diren liburuak haur eta gazte liburuak direla ere esan zidan. Gazteen kasuan, neska gehiago dira mutilak baino, antza denez, eleberrri erromantikoak eta beldurrezkoak nahiago dituzte. Ez du axola nork idazten dituen, idazle onak ala txarrak; garrantzitsuena da maitasun, desengainu edota traizio asko izatea, erromantikoen kasuan. Besteetan, izua, banpiroak, beste mundu batzuetako izakiak, izpiritu onak eta gaiztoak...

**TOTI MARTINEZ DE LEZEA**  
Idazlea



Gazteei esango nieke irakurtzeko ez duela axola generoak, baina dramatar erro-mantikoak gustuko dituztenei Tolstoiren 'Ana Karenina', Emily Brontëren 'Tontor ekaiztsuak', edo Alexandre Dumasen 'Kamelietako dama' bezalako lanei begiratu bat emateko. Terrorea nahiago dutenei, Stephen Kingen 'Carrie', Bram Stokerren 'Drakula', H.P. Lovecraftren edozein nobela, edo Mary Shelleyren 'Frankenstein'. Liburu potoloetarako astirik ez badute, irakur ditzatela Edgar Allan Poeren kontakizunak. Amestu, negar egin edo ikartu ez ezik, literaturaren benetako maisuek idatzitako lanak ere irakurriko dituzte. Gauzak argi esan ditzagun: idazten duen oro ez da idazle ona, edo kantaria ere ez da sehaska-kanta kantatzen duena, edo margolari bat paper orri bat margotzen duena...

## Izartzako auzo eskola

**“I**nurritsuuaak”, *andereñoaren hitz hau entzun ondoren, seinek berehala euren jolasak itzi eta joan ziran ume nagusiak aitzurrekaz lanean hasi ziran baratzeran.* Pasadizo hau ezagutzen dogu Pedro Zufia orduko hezkuntza ikuskariari esker.

Izartzako eskolak nekazaritza-esperimentaziorako baeukazan lau lurzati, produktu bereak ongari desberdinekaz lan egiteko; labore libreko 18 lursail, horietako bakoitzean neska batek eta mutil batek elkarregaz landu eiezan: arbol frutalerako eremu bat, zerealak eta lekadunetarako koadro bat, erletxe bi, oioltegi bat, hazitegi bi...

Eskola 1928an martxan jarri zan aldundiaren 1919ko programa anbiziotsu baten barruan, zeinaren helburua baitzan analfabetismoa desagerraraztea (Bizkaian 1920an %32,7, Espainian 52,2%), landa-inguruneke eta meatzategi industrialdeko heziketa ga-

beziagaz amaitzea, eta eskola euskalzale eta elebiduna sortzea. Horretarako 1920tik 1930era jada 100 auzo-eskola eregin ziren (83 landa ingurunean), eta 1936rako 25 gehiago. Eskola honek egiteko, auzokoek eta udalek lurra ipini eta eraikuntza ordaindu behar eben, aldundiak, bere aldeetik, irakasleak eta irakaskuntza materiala jarri. Izartzako kasuan, lurra udalak jarri eban eta eraikuntzaren kostua ordaintzeko, 23.250 pesetakoa, udala eta familiak moldatau behar izan ziren.

Txorierrin, Izartzakoaz gain, altzau ziran Larrabetzun Goikolezalde, Belarri-naga eta Gaztelukoak; Goitioitzakoa Lezaman; Zamudion Geldokoa; Deriokoa, baina hau itxi eben eta bere ordezt Artebakarran eta San Antolinen eregi ebezan, eta Loiuin Lauro eta Elotxelerrikoa.

Hezkuntza aldetik eredu bi egoen: A eta B. A eredu eskolen bi herenek osatzen eben, Izartzakoa barru, eta euskera

zan erabilitako hizkuntza, baita ikasgaietan be, gaztelania ikasgaietan izan ezik. B ereduaren, aldiz, gaztelania bakarrik erabiltzen zan, euskera ikasgaietan izan ezean, baina hau ikasteko goi-mailan borondatezkoa baino ez zan.

Pedagogiari dagokionez, oinarrizko orientazio batzuk ziran elkarriketa biziari eta irakurketaren azalpeni lehen-tasuna emotea, metodo memoristikoa baztertuz: “Eskolan uste dogu guztiz debekatuta geratu behar direla oroimen irakaspenak bezain zentzunbakoak diran praktikak...” eta ikasleie eguneroko bizi-tzarako prestatzeko, baliagarri jakozan ezaguera praktikoak emon behar jakezela aitatzen eban Auzo eskolen programak.

Izartzako eskolan 1930eko azaroan 82 haur matrikulatuta egoen, kopuru handia, jendeak berez umeak auzo eskolara eroatea nahiago gura ebazan eskola nazionalera baino.

**IÑAKI EGUSKIZAGA**  
Abokatu erretiratu



## BERRI LABURRAK



## EGAZ Txorierri “oso positibotzat” jo du urte hasierako tailer praktikoaren programa

EGAZ Txorierri herritarren enplegagarritasuna hobetzeko tailer eta saio praktikoaren programa oso bat garatu du urteko lehen hiruhilekoan, “enplegua bilatzeko prozesuaren erronka nagusiei modu integrean helduz”. Erantzuna “oso positiboa” izan dela nabarmendu dute.

Ekimenek, aurrez aurrekoak eta bi ordukoak, lan orientazioa, tresna berriak eta motibazio dinamika uztartu dituzte, eta parte-hartzaileei baliabide “erabilgarriak eta lan merkatuaren egungo eskarietara egokituak” eskaini dizkiete.

Jarduera horiei esker, partaideek funtziozko gaitasunak eskuratu dituzte laneratzeko “berme handiagoekin” aurre egiteko. Gainera, programak eduki berri-

tzaileak sartu ditu, hala nola, enplegua bilatzeari aplikatutako adimen artifizialaren erabilera.

Harrera ona izan duen saio nagusietako bat *Rastrea Txorierri* hitzaldia izan da. Bere helburua inguruan dauden lan baliabideak eta aukerak herritarrei hurbiltzea izan da. Guztira, 36 pertsonen hartu dute parte. “Erakusten du gero eta interes handiagoa dagoela enplegura bideratutako horrelako prestakuntza ekimenekiko”.

EGAZ Txorierri oso positibotzat jo ditu bai parte-hartzea, bai bertaratu-tako pertsonen erakutsitako konpromisoa, baita tailer horiek lan merkatuan sartzeko motibazioan eta prestakuntzan duten eragina ere.

## Maiatzaren 14an greba errepikatuko dute udal langileek

Apirilaren 23an, bi orduko lanuzteak egin zituzten, eta maiatzaren 14an eta ekainaren 4an, egun osokoak egingo dituzte. Salatu zuten lan baldintzak hobetzeko negoziazio mahaiak blokeatuta daudela.

ELAren eta LABen ustez, Hego Euskal Herriko langile publikoen lan baldintzak gero eta gehiago daude Espainiako Gobernuaren erabakien menpe, eta hori,

hein handi batean, bertako alderdi politikoaren “arduragabekeriagatik” ari da gertatzen. Horri buelta emateko, bi sindikatuek grebara deitu dituzte Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako udaletako langileak, haien lan baldintzak negoziatzen diren mahaietan dagoen “blokeoa” salatzeko eta neurri horiek “hemen eta orain” adostera behartzeko.

# Aikorren helbide berriak

**Albisten berri emateko:**  
txorierri@aikor.eus  
688 864 135

**Kudeaketari lotutakoak:**  
aikor@aikor.eus  
747 406 561

**Administrazioa eta publizitatea:**  
admin@aikor.eus  
688 782 642

## II. Udaberriko Kantaldia maiatzaren 16an egingo dute

Sondikako Txuma Olague abesbatzak II. Udaberriko Kantaldia egingo du maiatzaren 16an, 19:00etan, San Joan Bautista elizan. Sondikako abesbatza ez da bakarrik egongo, Zornotzako *Xuxurlariak* eta Logroñoko *Coro con dos bemoles* abesbatzen laguntza izango baitu oholtza gainean.

## Hondakin organikoaren edukiontzia mugikorrarekin ireki daiteke

Txorierriko Mankomunitateak jakitera eman du dagoeneko hondakin organikoaren edukiontzi marroia mugikorrarekin irekitzeko aukera dagoela. Horretarako, aplikazioa instalatu eta txartel elektronikoa lotu behar da, besterik ez. Aplikazioa Android eta IOS sistemetarako dago erabilgarri. Mankomunitatek diote “oso erraza” dela eta beraz, ez dagoela aitzakiarik birziklatzeko.



## Loiu eta Lezama, Bizkaiko herririk aktiboena izateko lehiaketan

Bizkaiko 59 udalerrik 2026ko Kirolur Erronkan parte hartuko dute eta tartean daude Txorierriko Loiu eta Lezama. Bizkaia 2026ko Europako Kirol Lurralde izendatu dutelako jarri dute martxan lehiaketa eta helburu dute bizimodu osasungarria sustatzea eta gure gizartearen kirol espirituaren indarra balioestea.

Apirilaren 15etik aurrera, izena eman duten herriek lagunartean lehiatuko dute Wellk kirol-aplikazioaren bidez. Hiru etapetan banatu dute: udaberria, apirilaren 15etik maiatzaren 17ra; uda, ekainaren 15etik uztailearen 15era; eta udazkena, irailaren 23tik urriaren 23ra.

Parte hartzea guztiz doakoa da eta 14 urtetik gorako pertsona guztiei irekita dago. Bat egiteko herritarrek Wellk aplikazioa deskargatu besterik ez dute egin behar (iOS eta Androiderako eskuragarri), profila sortu eta hasierako pantailan agertzen den Kirolur txar-telean klik eginez euren udal-taldera batu. Jarduera fisikoaren erregistroa zuzenean aplikazioaren GPSarekin edo ohiko gailuak sinkronizatuz egin daiteke, hala nola Strava, Garmin, Fitbit, Apple edo Google Health Connect. Kilometroak puntu bihurtuko dira, baina ponderazio koefizientea eta biztanleria koefizientea erabiliko ditu aplikazioak puntuak emateko orduan.

Bizkaiko herririk aktiboena izatea bada saria, baina, horrez gain, gutxienez 150 puntu lortzen dituzten erabiltzaileek erronkako merchaidising ofiziala jasoko dute. Udalerriek ere izango dute saria: lehen postuetan geratuko direnek diru laguntzak jasoko dituzte herriko kirol klubek materiala erosteko.

## BERRI LABURRAK



### Astobieta-Villa eta Ziarsolo-Uriarte bikoteak, Bizkaia Cup-eko txapeldun

Lezamako Pelota Klubak senior mailako bi txapel irabazi ditu Bizkaia Cup Txapelketan. Batetik, 3. mailan, Arkaitz Villak eta Xabier Astobietak 22-15 hartu zituzten mendean Gure Kirola taldeko Arkaitz eta Iskander Eguillorri, Barakal-

don jokaturako finalean. Bestetik, lehen mailan, Lezamako klubeko ordezkarien arteko finalean, Adrian Uriartek eta Aritz Ziarsolok jantzi zuten txapela Oier Hormaetxe eta Edorta Bilbaori 22-18 irabazi ostean.



### Beste Bira txapeldunorde, Espainiako Maratoi Erdiko Master Txapelketan

Beste Birarentzako denboraldi bikaina izaten ari da. Meridan lehiatutako Espainiako Maratoi Erdiko Master Txapelketan azpitxapeldun izendatu da bi modalitatetan.

Otsailean, Ibizako 10 kilometroko Espainiako Txapelketan hiru podium ostean, 21 kilometrotan ere emaitza bikainak lortu ditu Loiuko Beste Bira taldeak. Igor García Zarraga, Josu Ronda, Juan Carrascal eta Aitor Sanchoyertok bigarren postua lortu zuten bakarrik Madril-

go AD Marathon taldearen atzetik lasterketa "oso gogogorraren ostean".

Hori gutxi ez, eta Garcia Zarraga bigarren geratu zen M50 kategorian. Ibizan ere emaitza bera lortu zuen. Horrez gain, Ronda seigarren izan zen M55 mailan. 23 urtez azpikoetan lehiatu zuen Sanchoyertok eta 5 kilometroko lasterketan parte hartzea lortu zuen gutxieneko marka izaterakoan. Horrenbestez, Beste Biratik "oso pozik" daude emaitzekin, batez ere Master kategorietan lortzen ari diren emaitzengatik.

## BERRI LABURRAK

### Esnatu dinamika aurkeztu du UEMAk

Gaur egun bezala jarraituz gero eremu euskaldunenean ere euskarak atzerantz egingo duela diote ikerketek, eta horri erantzuteko eta egoera iraultzeko arduratik sortutako ekimena da Uemak martxan jarritako *Esnatu* dinamika, hainbat eragile-laguntzarekin, 18, momentuz, guztira.

“Era guztietako eragileak ahalduntzea eta eremu euskaldunek bizirik iraun dezaten eragileen konpromisoak sustatzea da asmoa”. UEMako lehendakari Martin Aramendik azaldu du “kezka handia” duela datu soziolinguistikoek arnaguneetan erakusten duten gainbeherarekin, eta “arduraz” bizi duela azken ikerketek hurrengo urteotarako aurreikusten duten galera.

“UEMAk argi du arnaguneak eta lur-gune euskaldunena giltzarriak dira euskararentzat, eta eremu horiek babestea eta sendotzea ezinbestekoa dela, euskararen lurralde osoan eragin dezaten eta euskararen biziberritzean motor izan daitezten. Ezinbestekoa da egoerari buelta ematea, eta kezka eta ardura horretatik sortu da *Esnatu* dinamika ere”.

Aramendik adierazi duenez, Bertsozale Elkarteak izan da, nolabait, ekimenaren aitzindaria: “Bidea aztertzen hasi ginenean, beste hainbat eragile ere prest zeudela ohartu ginen, euskarak behar duen pizkunde berriari ahal duten heinean ekarpena egiteko gogotsu baitaude bateko eta besteko talde, elkarte eta askotariko eragileak. *Esnatu* ala hil esan digute ikerlari, soziolinguista eta euskaltzale adituek, eta, dagokigun arduratik, argi dugu: esnatzea da gure hautua”.

UEMAk *Esnatu* dinamika herrietara ere zabalduko du bihurtik aurrera, hitzaldiak, foroak eta eragileekin bilera zuzenak antolatuta. Herrien edo eskualdeen tipologiaren arabera modu batera edo bestera ekingo dio UEMAk horiek presatzeari, udalekin lankidetzan.

Hurrengokoak dira parte hartu duten 18 eragileak: AEK, IKA, Bankoa Abanka, Laboral Kutxa, Kutxabank, ELA, LAB, Bilgune Feminista, Euskal Herriko Bertsozale Elkarteak, Euskal Pilota Federazioa, Euskadiko Futbol Federazioa, Cerderna-Garalur elkarteak, Euskaldendak, Fagor taldea, Plazaola Partzuergo Turistikoa, Hekimen, Lanartea eta Euskalginguzaren Kontseilua.

### Kostatzen zaigu Derio mapan kokatzea

Abenduan jarri zuen martxan Codesyntax informatika enpresa eibartarrak *Tagzania* mugikorrerako jolasa. Aplikazioak Euskal Herriko bazter bateko 4-5 argazki erakusten dizkizu, eta ahalik eta azkarren mapan kokatu behar duzu lekua. Ondoren, berdina egin behar duzu munduko beste txoko batekin.

Egunero 10.000 erabiltzailetik gora ditu *Tagzania* jolasak, eta milioi bat partida jokatu dira jada. Codesyntaxek marka aprobetxatu du estatistikak

aurkezteko: jokalariek Puppy eskultura, Guggenheim museoa eta Ipurua futbol-zelaia kokatzen dituzte ondoen. Aldiz, zailenak egiten zaizkie Karrantzian dagoen Ahedoko eliza, Trapagarango eliza eta hirugarren postuan, Derio herria. Ez dituzte argazkiak erakutsi, baina diotenez, Derioren kasuan, “uste dugu eraikinen arkitekturek despiatzen duela”.

Jolasa doakoa, euskalduna eta Euskal Herriko eta munduko bazterrak ezagutzen lagunduko dizu.



### Onintza Oiartzabal Maisterrena

Herria: Oiazun | Adina: 21  
Kadua: Gastronomía eta Sukaldaritzako Arteen Gradua

#### Definitu apur bat zure burua: non egin dituzu orain arteko ikasketak? Baduzu hobby edo zaletasunik?

Txiki txikitatik Elizalde Herri eskolan ikasi izan dut, batxilergo arte IES Xabier Zubiri Manteora joan behar izan nuela. Pertsona alai, mugitua, kuriositate handikoa eta langilea naizela uste dut. Zaletasunen artean ba tipikoenak, kirola asko gustatzen zait, mendira joatea, lagunekin egotea eta, noski, sukaldatzea.

#### Zergatik aukeratu zenuen Gastronomía eta Sukaldaritzako Arteak gradua? Eta zergatik Mondragon Unibertsitatea?

Batxilergoan zientzien adarretik nentorren, eta ingeniariaritzan, kimika edo biologia ikastea nuen buruan. Aldi berean, etxean astebururo postreak egiten nituen eta asko gustatzen zitzaidan. Nere gertuko lagun bat graduatu sartu zen eta berak kontatzen zidan zer egiten zuten klasean eta asko erakartzen zidan.

Ikusi nuen gradu honek bai alde zientifikoa eta baita ere nire zaletasuna zituela, eta horregatik aukeratu nuen. Gure inguruan gradu hau eskaintzen duen bakarra denez, Basque Culinary Center-ra etortzea erabaki nuen.

#### Nola baloratuko zenuke orain arte bizitako esperientzia?

Egia esan, 4 urte hauetan oso ongi pasatu dut eta aldi berean izugarri ikasi dutela sentitzen dut, pixka-bat denetatik. Oso desberdina da gradu hau, urte hauetan pila bat aldatu naiz pertsona bezala: urteroko praktikekin aukera izan dut lan mundua ezagutzeko, kanpora joateko ingeleza ikasiz, pila bat landu ditut komunikazio abildadeak eta konfiantza neregana presentazio ugari baiditugu...



#### Nola definituko zenuke BCCn jasotzen duzun ikasteko metodologia?

Oso desberdina, jada 4 urte pasa dira eta ohitu naiz, ez naiz ohartzeko baina gogoratzen naiz hasieran oso jakintza desberdina zela. Oso praktikoa, sektoreko profesionalen txarlar ugari, azterketak gutxi eta lan asko, talde lanean egun osoa, ikuspuntu oso desberdinetatik ikusten da gastronomía. Bide pila bat daudela merkatuan ez genekizkienak ezta existitzen zirela.

#### Unibertsitateetik zer da gehien gustatzen zaizuna?

Lantzen diren puntu desberdin guztiak, ia ia egunero irteera desberdin bat ikusten dut. Oso gustuko dut ere gertuko ikusten dutela ikasten dutena, hau da, gastronomía gure egunerokoan oso sartua dago, bai aisialdian, supermerkatuan erosten dugunean, etxean jaten duguna egunero... eta hortaz ohartzeko, lehen ikusten ez nituen gauzak ikustea. Jakitea biharko egunean bide pilabatekin ahal dutela joan, lan pila bat eta gauza asko daudela lantzeko gure sektorean. Gure lanbidean jendeak zenbat bizitzen duen ikustea, beraien ideia landu eta aurrea eramateko egiten duten esfortzua.

#### Etorkizunari buruz zeintzuk dira zure asmoak?

Momentuz ikerketa mundutik jarraitzeko gogoia erabakia daukat. Hala ere, Graduak eskaintzen duen hainbeste aukerarekin ez daukat oraindik oso argi... Alde horretatik Graduak irteera profesional ugari eskaintzen ditu eta abantaila handia da.

## Sondikak Irisgarritasun Plana eguneratuko du

Sondikako Udalak Irisgarritasun Plana eguneratuko du, “sondikoztar guztiek espazio publikoetz gozatzeko aukera izan dezaten, beharrezkoak ez diren oztopoei aurre egin behar izan gabe”.

Lehenik eta behin, egungo egoeraren diagnostikoa osatuko dute. Hasiarako lan horrek irudi osatua eskainiko dio udalari, epe luzerako plan bat egin ahal izateko. “Aurrera begirako plana, gainera, azken hiru urteetan udalak dagoeneko egin dituen lanekin koherentea izan beharko da”.

Orain arte egindako hobekuntzen artean nabarmendu dituzte zenbait auzotan espaloiak baxuagoak egiteko egindako lanak, herrian zehar kokatutako barandak eta aldapen hobekuntzak. Horiekin batera, diote “berreziki garrantzitsua” dela informazio piktogramak jarri izana iaz, “oztopo sensorialak eta kognitiboak barne hartzen dituelako, udalerrinari gizarte bidezkoago baterantz aurrera egiteko aukera emanda”.

Naia Landa alkatearen hitzetan, “udal gobernu honentzat hiri irisgarritasuna funtsezkoa da; pertsona guztien bizi kalitatea hobetzen du, eta horrek Sondika justuago eta kohesio-natuago batera hurbiltzen gaitu, eta hori da gure helburua”.

## Aparkaleku gehiago Cesteron

Cestero bidea norabide bakarreko errepide bihurtuko du Sondikako Udalak hasi berri diren lanen bidez. Horrela, espazio gehiago sortuko da kalearen alboetan ibilgailuak aparkatu ahal izateko. Gaur egun, bi norabideetan gidatu daiteke errepide horretan eta autoak uzteko arazoak izaten dituzte inguruko lagunek. Auzokideen eskaera hau aurrekontuetan sartu zuen udal gobernuak. Udalak jakinarazi du laster emango duela lanek sortuko dituzten eraginengatik inguruko informazioa zehatzagoa.

## BERRI LABURRAK



## Udalak HAPO berria onartu osteko Lezama aurkeztu du 3D bideoen bidez

Lezamako Udalak 3Dko bideoetan erakutsi nahi izan du zelan geratuko litzatekeen herria HAPO berria onartu ondoren. Horrela, udalerriko hainbat gune nola eralda daitezkeen ikusi daiteke.

“Birsortze horiei esker, argi ikusi daiteke aurreikusitako garapenen norainokoa, eta hobeto uler daiteke nola integratuko diren egungo hiri-ingurunean”, azaldu dute udaletik. Planteamenduan definitutako altuerak eta bolumenak errespetatzen dituzten simulazio orientagarriak direla diote, baina ez direla behin betiko eraikuntza proiektuak. Materialak, akaberak eta xehetasun arkitektonikoak

aldatu daitezke, eremu bakoitzean garatzen diren proiektuen arabera.

Bideo hauen helburua da herritarrentzat “tresna erabilgarri eta ulergarria” eskaintzea, planteatutako hazkunde ereduaren ikuspegi globala erraztuz. “Garapen orekatuaren alde egiten duen eredu, udalerriko hainbat gunetan banatua eta etxebizitza beharrei erantzutera bideratua, udal etxebizitza tasatua bezalako formulen aldeko apustu nabarmena barne”.

Hauen artean, “Frontoi Atze” lurzatia ere ageri da garatuta, non gatazka sortu den Oxangoiti tabernaren etorkizunaren inguruan.

## Olaia Aguayok Luzia Urigoitiaren rola hartu du *Lutxi eta zuhaitza* film dokumentalean

Aktore larrabettuarrak *Lutxi* etakidea interpretatu du Lander Garrok zuzendutako *Lutxi eta zuhaitza* film dokumentalean. Zuzendariak Aguayo giltzarria izan dela nabarmendu du “espresio samurra eta begirada gogorra” dituelako, eta horrek aukera eman dio pertsonaiaren barne tentsioa irudikatzeke. Apirilaren 28an estreinatu dute Donostiako Victoria Eugenia Antzokian, Giza Eskubideen Zinemaldiaren barruan.

1987ko uztailaren 23an, Guardia Zibila ETako Donosti komandoaren aurka egindako polizia operazio baten barruan hil zuen Urigoitia, Pasaiako Trintxerpe auzoko etxebizitza batean. Bertan zuden Alicia Pereira, Manuel Muiños eta Urigoitia bera; Pereira eta Muiños atxilo

eraman zituzten, baina Urigoitia ez zen bizirik irten etxetik: bi tiro eman zizkioten, haietako bat buruan. Bertsio ofizialak tiroketaren teoria zabaldu zuen, baina lehen azterketa forentseek bestelako zantzuak agertu zituzten: garondoa hartutako tiro batek hil zuen. Auzia duela 26 urte itxi zuten epaitegietan, baina zer gertatu zen guztiz argitu gabe dago oraindik.

Hain zuzen ere, Otxandioko herritarrek sortutako Aurrera Begira elkarteak hartu du lana finantzatzeko eta dokumentatzeko ardura nagusia ere. Memoria politikoaren inguruko gogoeta zabalagoa egiteko, eta memoria ofizialaren eta herritarren memoriaren arteko talka hori bistarazteko baliatu dute filma.

**Aita edo ama gisa zure seme-alaben etorkizunerako hezkuntza-aukerarik onena bilatzen ari bazara, haien bizitzak alda ditzakeen erabaki bat hartzeko unea iritsi da.**

### **Lana lor dezaketela jakitearen lasaitasuna**

Beste hezkuntza-aukera batzuekin tituluekin baina esperientziarik gabe uzten dituzte gazteak, baina gure ikasleek benetako enpresetan lan eginda amaitzen dituzte ikasketak, ezarritako kontaktu profesionalekin eta, kasu askotan, lan-eskaintzekin mahai gainean.

### **Erritmo bakoitzari egokitutako prestakuntza: Oinarrizko LHtik Mastererraino**

Ulertzen dugu gazte bakoitza desberdina dela eta pertsona guztiak ez direla aldi berean heltzen. Horregatik, gure ikasketxeak ibilbide osoa eta malgua eskaintzen du, Oinarrizko Lanbide Heziketatik Lanbide Heziketako mastererraino.

### **Zuen seme-alabak zaintzen dituen taldea**

Badakigu zuen seme-alaben heziketan konfiantza izatea erantzukizun handia dela. Horregatik, ikasketxeak ikasleei banaka laguntzen dien orientazio-zerbitzu pertsonalizatua du.

### **Ikasten duten bitartean lan egin eta kobratu dezakete: Prestakuntza Duala**

Hona hemen familiak gehien harritzen dituen abantailetakoa: prestakuntza duala trinkoko sisteman, ikasleek ikasketxean ikastea eta benetako enpresetan lan egitea txandakatzen dituzte, eta soldata kobratzen dute prestakuntza jasotzen duten bitartean. Ikasleek autonomia ekonomikoa irabazten dute, eta laneko ahaleginaren eta erantzukizunaren balioa ikasten dute.



### **Gure mugetatik haratagoko aukerak**

**Erasmus+** programaren bidez, ikasleek praktika profesionalak egin ditzakete Europako beste herrialde batzuetako enpresetan. Zuen semea edo alaba Alemanian, Frantzia, Italian edo Maltan trebatzen eta lanean irudikatzea ez da lortu ezin den ametsa, eskura dugun errealitatea baizik. Nazioarteko esperientzia horrek curriculuma aberasteaz gain, pertsona gisa haztea, heldutasuna eta independentzia lortzea eragiten die.

### **Aurrematrikula: maiatzaren 4tik 22ra. Plaza mugatuak. Ez utzi azken egunerako.**

Informazio gehiagorako:  
[fpandramari.eus](http://fpandramari.eus)  
944562720

# **Aurrematrikula Maiatzaren 4tik 22ra**

Bisitak zentroan,  
deitu 94 456 27 20  
telefonora



Adm nistratzaio  
eta Finantzak



Mekatronka  
Industrialia



Zuzendaritza  
Laguntza



Telekomunikazio  
eta Informatika Sistemak



Zibersegurtasuna Eragiketa-  
Teknologien inguruneetan



Mantentze Lan  
Elektromekanika



Adm nistratzaio  
Kudeaketa



Telekomunikazio-  
instalazioak



Elektrizitateko eta elektronikako  
(Oinarrizko LH)

## ZOZKETAK


Aikorren komunitatearen parte izateak saria du. Hilero hainbat sarrera eta opari zozkatuko ditugu gure irakurleen artean. Argibide gehiago: [aikor.eus/zozetak](http://aikor.eus/zozetak)



### Hontza Museorako sarrerak

Hilero Hontza Museorako sarrera bikoitza!

Zozketan izena emateko azken eguna: **maiatzak 17**



### JumpYarderako sarrerak

Hilero hilero JumpYarderako sarrera bikoitza!

Zozketan izena emateko azken eguna: **maiatzak 17**



### Bitxikool belarritako pare

Zamudioko Bitxikool artisauen eskutik

Zozketan izena emateko azken eguna: **maiatzak 17**



### Eguneko menua bi pertsonarentzat BASERRI ANTZOKIAN

Hilero bi lagunentzako menua zozkatuko dugu zuzenean gure aikorlagunen artean. Ez da beharrezkoa izena ematea.

#### AURREKO HILABETEKO IRABAZLEAK:

Eguneko menua Baserri Antzokian:  
**Inisitue Zamudioko Gazte Asanblada**

JumpYarderako sarrerak:  
**Sheila Alvarez Gomez**

Hontza museorako sarrerak:  
**Ekaitz Legarreta Laita**

## BERRI LABURRAK



### Naroa Etxegarai eta Maia Elozegi larrabetzuarrak, Euskadiko Errugbi Selekzioarekin

Naroa Etxegarai eta Maia Elozegi larrabetzuarrak Euskadiko Errugbi Selekzioarekin parte hartu dute Madrilen jokaturako CESA M15 Txapelketan. 15

urte azpiko kategoriako Espainiako Autonomia Erkidegoen arteko Txapelketa da CESA. Euskadik seigarren postuan amaitu du, Katalunia izan da txapeladun.

### Toti Martinez de Lezea eta Gasteizko Musika Banda, bat eginda

Toti Martinez de Lezea idazle larrabetzuarrak eta Gasteizko Udal Musika Bandak bat egingo du lehen aldiz kontzertu berezi batean. *Vitoria-Gasteiz hamar doinutan* izenpean eman zuten kontzertua apirilaren 21ean Arabako hiriburuko Jesus Guridi Kontserbatorioko areto nagusian.

Jesus Guridiren *Diez melodias vascas* izan da kontzertuaren ardatza. Gasteizen jaiotako Martinez de Lezeak sortu ditu testuak eta narra-tzaile lanak ere osatu ditu. “Herrixka, gotorlekua, merkatarien hiribildua eta harrerako lurraldea izandako hiriaren historia kontatzen dute testuek. Bertako biztanleek atsedetik gabe lan egin eta borrokatu zuten mendeetan zehar, garai batean herrixka txiki zena gaur egungo hiri eder bihur dadin lortzeko”.

 **POLITEKNIKA  
TXORIERRI**

**HEGAN  
EGITEKO AUKERAK**

Lanbide Heziketa eta Batxilergoa

**Zure superboterea garatu**

**Eman izena  
POLITEKNIKATXORIERRI.EUS**

 Euzko Jaurlaritzaren Heziketa Saila | Heziketa Saila | HETEL





**ITXASO MARINA**  
Aikorreko kazetari ohia

## “Helduarorako bidea eskutik egin dugu aldizkariak eta biok”

2002ko irailean heldu zen Itxaso Aikorrera. Aldizkariak hilabete gutxi zeramatzan martxan, dena zegoen egiteko. 28 orrialde zituen aldizkariak, lau besterik ez koloretan. Webgunerik ere ez zuen. 23 urtez Santurtzitik Zamudiora, Txorierriren berri emateko. Testigua pasatzeko unea iritsi zaio.

**E**hunka lagun elkarrizketatu dituzu urte hauetan, baina oraingoan zeu zara elkarrizketatua. Kostatu zaizu baiezkoa ematea.

Urte askoan izan naiz grabagailuaren atzean, orrialdeen anonimatuak babes-tuta, eta ez da erraza bat-batean ikusgai egotea. Baina, tira, lankideak zarete, eta ezin nizuen ezetz esan... Hori zuek ere bazenekiten proposamena egin zenidatenean (kar-kar).

**Artxiboan begiratu behar izan dugu: aldizkariaren zortzigarren alean hasi zinen Aikorren lanean, 2002ko irailean.** Hara! Hogeita hiru urtez izan naiz Aikorren lanean... Oso gaztea nintzen Txorierriera ailegatu nintzenean, eta aldizkaria ere jaio berria zen. Hortaz, esan genezake

“Kolaboratzaileak ondoan izan ditut hasieratik herriak eta auzoak erakusten, elkarreak eta herritarrak aurkezten”

“helduarorako bidea” eskutik helduta egin dugula. Oso une politaz betetako bidea izan da, eta lagun, lankide eta irakasle zoragarriak eramango ditut nirekin. Eta bailarako herri guztietan beti lagun-

tzeko prest izandako hainbat eta hainbat lagun eta kolaboratzaile. Hala ere, harriz betetako bidea ere izan da, eta une latzak bizi izan ditugu. Euskara elkarreentako kide batzuen ahaleginari eta burugogorkeriari esker jarraitzen du Aikorrek bizirik, eta oso-oso eskertzeoak dira aldizkariari zein euskarari eskaini dizkieten ilusioa eta lanorduak.

**Beste eginkizun batzuetan zabilta orain.**

Kazetaritza albo batera utzi dut momentuz, baina euskararekin harreman estu-estua izaten jarraitzen dut.

**Egunero Ezkerraldetik Txorierri-  
ra lanera... Ez zenuen bailara ia ezagutzen.**

Ez zen erraza izan; ez dut gezurrik esango. Alde batetik, ez nuen Txorierrri eza-gutzen; eta bestetik, konturatu nintzen atera berria nuen EGA titulua gutxirako nuela baliagarria... Baina aurreko le-  
rroetan aipatutako lagunak eta kolabora-  
tzaileak ondoan izan ditut hasiera-hasie-  
ratik. Zertan? Bada, herriak, auzoak eta  
bideak erakusten, elkarteak eta herri-  
tarrak aurkezten, egiteko moduak eza-  
gutarazten, aholkuak ematen, albisteak  
jakinarazten, ohituren berri ematen, nire  
alde agertzen... Azken batean, aurrera  
egiten laguntzen. Egia da azken urteetan  
aldizkaria nahiko autonomoa izan dela,  
baina, orrialdeetako sinaduretatik hara-  
tago, Aikorrek urteetan jaso du laguntza  
eskuzabal ikaragarria.

#### **Gaur egun jende gutxik ezagutuko ditu zuk baino txorierritar gehiago.**

Txikia izan arren, bailara bizi-bizia da Txorierrri. Eguneroko gaiez eta gertakariez gainera, txorierritarrek kezka handia duzue kulturarekiko, artearekiko, kirolarekiko, elkartegintzarekiko...; eta ondorioz, herritar asko eta asko izan dira/zarete modu batean edo bestean Aikorren protagonistak. Bestalde, ekipo berria dugu aldizkarian, gaztea eta Aikorri ikuspuntu freskoa ekarri diona. Lan txukuna egiten zabilzate eta espero dut urte askoan txorierritarrak protagonista bihurtzen jarraitzea. Eta bideko harriak gero eta txikiagoak izatea, jakina!

#### **Zertan aldatu da Txorierrri urte luze hauetan?**

## **“Euskara elkarteetako kide batzuen ahaleginari eta burugogorkeriari esker jarraitzen du Aikorrek bizirik”**

Begi bistakoa denez, eta herri guztietan tamaina berekoa izan ez arren, aldaketa batez ere fisikoa izan da: etxebizitza berriak egin dira, garraio-azpiegiturak, aisialdiari lotutakoak ere bai... Izan ere, biztanle kopurua ia %30 handitu da azken bi hamarkadetan, eta gaur egun 22.200 biztanle inguru daude bailaran. Horrek kultura aniztasuna ere ekarri du. Era berean, industriguneetako eta Teknologia Parkeko jarduera nabarmen handitu da.

#### **Euskaldunagoa da gaur egun?**

Bada, egia esateko, ez dakit zer erantzun. Zer da euskaldunagoa izatea? Ezagutza-maila gero eta handiagoa dela kontuan hartuta, euskaldunagoa izan beharko luke, baina kaleko errealitatea bestelakoa da. Eustaten datuen arabera, txorierritarren ia %54 euskalduna da, baina Soziolinguistika Klusterrak 2022ko Hizkuntzen Erabileraren Kale-neurketaren txostenean jaso moduan, Txorierrin behatutako solasaldien %10,7 baino ez zi-

ren euskaraz izan... Dena dela, nahiz eta datu ona izan ez, aurrera jarraitu behar da. Horri lotuta, gustatuko litzaidake go-raipatzea Txorierrriko euskara elkarteak eta euskaltzaleak aspalditik euskararen eta euskal kulturaren alde egiten dabil-  
zan lana, herritar guztientzako ekintzak antolatuz, egitasmoak martxan jarri-  
z, ekimenak sustatuz... Beti ez dutelako  
merezi duten esker ona eta begirunea  
jaso.

#### **Gustura idatzi duzun albiste bat?**

Asko, baina batez ere aldizkarirako idatzi nuen azken erreportajea dut gogoan. Bertan gure herritar batek bizitzaren gogortasunari egunero aurre zelan egiten dion jaso nuen, eta elkarrizketa egiten nenbilela zein testua idatzi nenbilela pentsatu nuen historia horiek kontatzeagatik merezi duela kazetaria izatea. Egia da aldizkariari esker euskal kulturako pertsona esanguratsua –baita Espainiar Estatu-  
takoak ere– elkarrizketatzeko aukera izan dudala, baina beti nahiago izan dut herritarrekin solasaldian ibili.

#### **Eta idaztea asko kostatu zaizun bat?**

Egoera zein den, erosoago edo sentiberagoa izan ahal zara albistea idaztean, jakina.

#### **Geratu da zerbait idatzi gabe?**

Bai, gauza asko. Idatzi eta esan gabe.

#### **“Hauxe da despedidea” esan omen zuen Mauriziak.**

“Ez adiorik” nahiago dut neuk. ●



**SUKALDEAK**  
insukaldeak.com

**BILBAO**  
**T. 94 402 82 54**

Lehendakari Aguirre 175-177.  
48015 Bilbao

**DERIO**  
**T. 94 656 85 69**

Txorierrriko etorbidea 9. Ed. Arteaga.  
48160 Derio



**NAHI  
DUZUN  
SUKALDEA**

25 urteko esperientziak bermatzen gaitu.  
Doako finantzaketa.



MIKEL REINA BARROS AZTARNA

## AZTARNA TALDEA

# Aztarna uzteko pausoa emanez

Aztarna uzteko pausoak eman beharra dago. Hori argi dute Sondikako gazteek. Horregatik, pauso hori eman, eta Aztarna gazte taldea sortu dute. Otsailaren 28an hasi zuten beraien ibilbidea, herriko tabernetatik osatutako pintxopote musikatuaren bidez. Urteko egutegia prest dute askotariko ekintzekin.

**T**xorierriko herri gehienetan gazte taldeak daude, Loiuko Bakarrak, Inisitue Zamudion edota Gazte Asanblada Lezaman. Sondikan, berriz, ez Gazte Egunik, ez Kintadarik, ez Kuadrilla Egunik. Biztanle aldetik bigarren herririk handiena izanik, ez da egon gazteak elkartzen dituen talderik. Orain arte. “Sondikako mota guztietako gazteak batu eta elkartzea helburu duen taldea gara, guztion arteko talde lana sustatzen duena”.

2025eko ekainean hasi zen guztia. Sondikako Udalak Gazte Kontseilua izeneko proiektua jarri nahi izan zuen martxan, eta horretarako hainbat gaztek lehen deialdian parte hartu zuten. Aitzakia horrekin bestelako bilerak antolatu zituzten herriko kuadrilla desberdineko gazteek. Hor eman zuten lehen pausoa. “Udalaren eskutik elkartu ginen, eta eskertuta gau-

de, baina hortik aurrera gure aldetik egin ditugu gainontzekoa, betiere udalarekin koordinatuta”.

Zerbaiten falta sentitu dute: gazteen-tzako espazioa eta eskaintza. “Barikuetan bai elkartu zaitezkeela tabernaren baten, baina zapatuetan, adibidez, aisialdi bila bestelako tokietara jo behar dugu”. Beharriana nabaritu dute herriko kuadrillek. “Denok elkar ezagutzen gara, herri txikia da Sondika, baina bai egia da orain arte ez garela inoiz elkartu eta gure nahiak mahai gainean jarri”.

Kezka handiak dituzte gaur egungo gazteek, handienetako bat, esate baterako, etxebizitzarena da. Baina kezka handi horiez gain, egunerokotasunekoei ere erreparatu behar zaiela uste dute. “Hutsune bat zegoela nabaritu genuen, eta bete beharra zegoen”.

WhatsApp talde orokor bat dute eta barruan arlo desberdinetako bestelako multzoak sortu dituzte: besteak beste, komunikazioa, koordinazioa edota logistika. Guztira 30 lagun inguruk parte hartzen dute modu aktiboan. Horrez gain, hilean behin elkartzen saiatzen dira. “Azkenean bakoitzak gure kontuak ditugu, eta bakoitzak ahal duena eskaintzen du bere esperientzia eta ilusiotik hasita”. Nabarmendu dute Aztarna zabalik dagoela herriko edozein gazterentzako, ez dela inondik inora talde itxi bat.

Hain zuzen ere, taldearen izaera “zabala eta parte hartzailea” nabarmendu dute. “Kuadrilla askotako gazteak gaude eta toki askotatik heltzen zaizkigu proposamenak. Horrela, beharriaznak identifikatzen ditugu eta asetzen saiatu”. Horrela antolatu dituzte mus eta frontenis



Otsailaren 28ko pintxopotea, Aztarna taldearen lehen ekintza.

txapelketak erantzun “ezin hobearekin”: 24 eta 22 bikotek eman dute izena, hurrenez hurren.

Ezagutara emateko, antolatu zuten lehen ekimena otsailaren 28ko pintxopote musikatua izan zen. “Zerbait esanguratsua nahi genuen, herrian arreta deitzen zuena, eta zer hobeto janariaren, edariaren eta musikaren inguruan baino. Gainera, gazteak bakarrik ez, adin guztietako herritarrek elkartzen dituen ekintza da”. Lehen ekintza izaterakoan zerotik hasi behar izan zuten: udalean baimenak eskatu, tabernekiko negoziatu, musika taldea bilatu... “Lan asko egin behar izan genuen, baina pozik gaude esfortzuak emaitza oso ona izan duelako”.

Erantzuna “bikaina” izan zela azpimarratu dute, “pentsatzen genuena baino

## “Hutsune bat zegoela nabaritu genuen, eta bete beharra zegoen”

jende askoz gehiago elkartu zen eta giro oso ona sortu zen”. Oro har, erantzuna “oso positiboa” izan da alde guztietatik: tabernariak, gazteak eta nagusiak.

Motibazio eta ilusio iturri bat izan zen lehen ekintza hura. Gero, mus eta frontenis txapelketak etorri dira. Eta gehiago etorriko dira. “Urteko egitarau edo plangintza bat antolatu dugu, hilabete bakoitzean ekimen bat antola-

tzea de gure ideia, mota, adin eta gustu guztientzako”. Alde horretatik, mendi martxa osatu zuten apirilaren 26an eta herri krosa maiatzaren 31n antolatuko dute. Diotenez, asko eskertzen dute herritarren interakzioa, proposamenak egiterakoan, adibidez, pala txapelketa bat antolatzea proposatu diete. “Eskaera handia daukagu, bai gure barnean, bai kanpotik ere, kalean ideia asko jaurtitzeko ditzigutelako”.

Izan ere, beharizana eta eskaera baten direnean arrakasta ziurtagarria egon ohi da. Hala ere, hankak lurrean dituzte, badakite oraindik bidea dutela egiteko. “Zerbait antolatzen dugunean ez dakigu 10 pertsonen eta 50 pertsonen parte hartuko duten, beraz, ezjakintasun horretan bizi gara”. ●

**ZAMUDIO-DERIOKO LURLANGILEEN ETXEA**

Santi Mami auzoa, 1  
Tel.: 94 454 10 06  
Faxa: 94 454 12 15  
48170 Zamudio (Bizkaia)

**Ford Goiri'78**  
ZERBITZU OFIZIALA

944 532 515  
goiritaller@fordgoiri.com

**BOSCH Service**  
**ATEKA**  
Bosch Car Service

946 740 456  
ateka@bosch-bcs.com

Txorierri Etorbidea, 46 - Pab. 5C - 5D  
**SONDIKA**

Centro Dental  
**Txorierri**

**Rocío Astorkia Bordegaray**  
Col. nº 48000759

**Ainhoa Rodríguez Mella**  
Col. nº 48001337

**Igone Nieto Hernández**  
Col. nº 48001462

Mitxine 7, behea - 48150 Sondika  
(geltoki aurrean)  
Tfno. 944 711 639 - Larrialdiak: 670 985 885  
www.cdtxorierri.es

**ORTODONCIA21**



T MIKEL REINA BARROS

## ZAMUDIOKO JAIK

# Lehen aldiz jaietan gauez auzoetara itzultzeko minibusak egongo dira

Maiatzaren 22tik 25era ospatuko dira Zamudioko Pazko Jaiak. Beste behin ere adin eta gustu guztientzako egitarau oparoa antolatu dute Zamudioko Udalak eta Eguraldi Ona Jai Batzordeak. Berritasun nagusia da, aurten lehen aldiz gauez auzoetara itzultzeko minibusak jarriko dutela.

**Z**amudioko Pazko Jaiak ospakizun gorenaren sinonimo dira. Lau egun besterik ez, baina bete-betekoak. Izan ere, barikutik astelehenera zeregiteko handia bezain anitza izaten da. Ez dago atsedean hartzeko edo asperetzeko astirik.

Maiatzaren 22an pregoia irakurri eta txupinazoa jaurtitzen denetik, Pazko Jaiak eztanda egiten dute. Aurten, Hiru Bat dantza taldeak izango du jai giroak eztanda egiteko ardura eta ohorea. Bertoko eta Gazte Elai Txistu taldearen eskutik kalejirarekin jarraituko dute. Lagunandre Elkartek perretxiko solidarioen dastaketa egingo du Sabino Arana plazan, dantzak nahiago dituenak lineako eta aretoko dantzen erakustaldia izango du frontoian. Iluntzea Ku-Klux

fanfarrearekin eta suzko zezenarekin egingo dute zamudioztarrek. Gaua luzatzeko ardura eskualdeko Matxinada taldeak, Gozategi talde historikoak eta Lehian erromeriak izango dute.

Hain zuzen ere, gauez helduko da aurtengo berritasuna nagusia. Lehen aldiz, herrigunetik auzoetara joateko minibusak jarriko du udalak. Doakoa izango da eta begiralearekin eta guzti. 00:00etatik 06:00ak arte emango du zerbitzua, orduro. Irteera puntua 0874 - Arteaga autobus geltokian izango da, tren geltokiarren ondoan (Txorierriko Etorbidea, 4). Minibus zerbitzua barikuan bakarrik ez, zapatuan ere egongo da.

Jaietako zapatua Sukalki Eguna izaten da Zamudioko Pazko Jaietan. Hori bai, sukalki txapelketan bakarrik ez, tortilla

txapelketan ere parte hartu nahi dutenek arin ibili beharko dira 09:00etan hasiko baita txapelketetarako izen ematea, Bidekoetxe parkean. 14:00etan hasiko dute dastaketa eta jarraian egingo dute sari banaketa. Herriko txikienek ere ez dute zereginik faltako, puzgarriak eta bits jaiak izango baitituzte egunean zehar. Iluntzean eta gauean musika izango da protagonista koralekin elizan, Burrunba elektrotxarangarekin eta kontzertuekin. Haize Errosa, Etxepe eta DJ Porty igoko dira oholtzara zapatu gauean.

Domekan, nagusiagoentzako egitaraua atondu dute mezarekin, pilota partidekin, bertsolariekin edota Hiru Bat eta Txixarrilloa Galea dantza taldeekin. Astelehenerako ere ekintzak antolatu dituzte: ginkana, meza eta karta txapelketa. ●

# PAZKO JAIAK 2026

MAIATZAK 22 - 25 MAYO

## ZAPATUA 16 SÁBADO

**18:00** **Jaietako zapien tailerra** Kultura Etxean.  
Taller de pañuelos de fiestas en Kultura Etxea.

## BARIKUA 22 VIERNES

**18:00** **Txupinazoa eta pregoia** Hiru Bat Dantza Taldearen eskutik.  
**Chupinazo y pregón** de la mano de Hiru Bat Dantza Taldea.

**Karamelu jaurtiketa.**  
Lanzamiento de caramelos.

**Kalejira Bertoko eta Gazte Elai Txistu Taldearen eskutik.**  
**Pasacalles** con Bertoko y Gazte Elai Txistu Taldea.

**19:00** **Perretxiko solidarioa eta dastaketa** Sabino Arana plazan Lagunandre Elkartearen eskutik.  
**Perretxiko solidario y degustación** en la plaza Sabino Arana de la mano de Lagunandre Elkartea.

**19:30** **Dantza erakustaldia** frontoian: lineako dantzak, areto dantzak, dantza latinoak eta sevillanak.  
**Exhibición de danza** en el frontón: bailes en línea, bailes de salón, bailes latinos y sevillanas.

**21:00** **Ku-Klux fanfarria** Zamudion.  
**Fanfarre Ku-Klux** por Zamudio.

**Suzko zezena** Sabino Arana plazan.  
**Toro de fuego** en la plaza Sabino Arana.

**23:00** **Kontzertuak** Sabino Arana plazan.  
**Conciertos** en la plaza Sabino Arana.  
- Matxinada + Gozategi + Lehian

## ZAPATUA 23 SÁBADO

SUKALKI  
EGUNA

**09:00** Sukalki eta tortilla txapelketetarako izen emateak Bidekoetxe parkean.  
**Inscripciones para los concursos** de sukalki y de tortilla en el parque Bidekoetxe.

**11:00** **Umeentzako puzgarriak** Bidekoetxe parkean.  
**Juegos infantiles** en el parque Bidekoetxe.

**14:00** Sukalki eta tortilla txapelketen dastaketa eta sari banaketa.  
**Degustación y entrega de premios** de los concursos de sukalki y tortilla.

**17:00** **Bostak eta Laurenak** taldearen emanaldia Bidekoetxe parkean.  
Actuación de **Bostak eta Laurenak** en el parque Bidekoetxe.

**18:30** **Bits jaia** Agirre Lehendakaria plazan.  
**Fiesta de la espuma** en la plaza Agirre Lehendakaria.

**19:30** **Koralak** eleizan.  
**Corales** en la iglesia.  
- Lagun Beti (Barakaldo)  
- Orfeon Uri-oste (Ortuella)  
- Zoli Abesbatza (Zamudio)  
- Zamudioko Kamara Korala (Zamudio)

**20:30** **Burrunba Elektrotzaranga** Zamudion.  
**Burrunba Elektrotzaranga** por Zamudio.

**23:30** **Kontzertuak** Sabino Arana plazan.  
**Conciertos** en la plaza Sabino Arana.  
- Haize Errosa + Etxepe + DJ Party

## DOMEKA 24 DOMINGO

**11:00** **Meza nagusia.**  
**Misa mayor.**

**Esku pilota partiduak eta bertsoak** frontoian.  
**Partidos de pelota a mano y versos** en el frontón.  
- Xala eta Alduntzin vs Ormaetxe eta Bilbao.  
- Alba Monje Atxutegi vs Uriarte Guerrero.  
- Bertsolariak: Jone Larrinaga eta Etxahun Lekue.

**18:00** **Hiru Bat Dantza Taldea** Agirre Lehendakaria plazan.  
**Hiru Bat Dantza Taldea** en la plaza Agirre Lehendakaria.  
**Txixtarrilloa Galea taldearekin** Adintsuen Etxean.  
**Chicharrillo** con el grupo Galea en Adintsuen Etxea.

**19:30** **Gema Martínezen bakarrizketa** Sabino Arana plazan.  
**Monólogo de Gema Martínez** en la plaza Sabino Arana.

## ASTELEHENA 25 LUNES

**12:00** **Meza eta luntxa** elizpean.  
**Misa y lunch** en el pórtico de la iglesia.  
**Umeentzako ginkana** Kultura Etxean.  
**Ginkana** para niños/as en Kultura Etxea.

**16:00** **Karta txapelketa** Adintsuen Etxean.  
**Campeonato de cartas** en Adintsuen Etxea.

**18:30** **Jaien Amaiera.** Ibilbidea herrian zehar Sabino Arana plazatik hasita.  
**Fin de fiestas.** Recorrido por el municipio comenzando desde la plaza de Sabino Arana.



## Bertakoa bultzatu, euskaraz gozatu

**T**xorierriko Zerbitzuen Mankomunitateak, Bizkaiko beste hainbat udalerrirekin elkarlanean, KAISHOP! kanpaina jarri du martxan, herrietako merkataritza eta euskara batuz.

Txorierriz gain, kanpaina herri hauetan ere jarriko da abian, euskarri digital eta fisikoen bidez: Getxo, Gernika-Lumo eta Leioan.

Txorierrin maiatzaren 15ean hasi eta ekainaren 5ean bukatuko den kanpaina honen bidez bi gai nagusitan jarri dugu arreta:

- **Tokian tokiko merkataritzak** ematen digun tratua pertsonal eta gertukoa. Izan ere, kalitatezko produktuak gertu eskuratzeko aukera ematen du, gure beharretara berehala egokitzen den zerbitzu bati esker. Dendek bizitza ematen diete auzoei, lana sortzen dute eta gertuko harremanak sustatzen dituzte.
- **Euskarak** tokian tokiko merkataritzan duen garrantzia. Euskara guztiona da, jantzia, osoa, aberatsa, gertukoa, kalitatezkoa. Keinu txikiek asko balio dute: ogia euskaraz eskatzea, galderak euskaraz egitea edo dendan euskaraz hitz egitea. Tokikoa aukeratzea eta euskaraz bizitzea gure esku dago. Horrela gure herria eta gure hizkuntza indartzen ditugu. Bi gaiak uztartuz, kanpainaren hartzaille izango diren Txorierriko herritarrei gonbidapena luzatuko diegu herrian eta euskaraz eros dezaten.

Kaishop! kanpaina, Txorierriko Mankomunitateak saltokiei urte osoan zehar egiten dien “Euskararen Lagunak” eskaintzaren barruan kokatzen da. 120 establezimendu baino gehiago dituen sarea da, eskualdeko saltokietan euskararen presentzia eta erabilera areagotzeko. Aurtengo kanpainako kartela sareko kide diren sei merkataritza eta ostalariren argazkiekin osatu da, Txorierriko herri bakoitzeko bana:

- Loiu: Elizondo janari denda
- Sondika: Museti jositegia
- Derio: Liliak lora-denda
- Zamudio: Zamudio burdindenda
- Lezama: Aitziber Longarai farmazia
- Larrabetzu: Koloreak, fruta-barazki denda

Bestalde, iaz egin ziren moduan, aurtengo ere kaleko inkesta ibiltariak egingo dira Txorierriko guztian zehar, eta herritarrek Txorierrin eta euskararen inguruan

**KAISHOP!**  
Erosi euskaraz TXORIERRIN

LEZAMA FARMAZIA (LEZAMA)	ELIZONDO JANARI-DENDA (LOIU)	ZAMUDIO BURDINDENDIA (ZAMUDIO)
KOLORETAKOAK FRUTA-DENDA (LARRABETZU)	MUSETI JOSITEGIA (SONDIKA)	LILIAK LORADENDA (DERIO)

*Euskara + 0 km = kalitatea*

Kaishop | Bizkaia | YouTube | Instagram | Facebook

zenbat dakiten frogatu beharko dute. Egun eta ordu hauetan ibiliko gara...

- Loiu: maiatzak 15, 17:00-17:45
- Sondika: maiatzak 15, 17:45-19:00
- Derio: maiatzak 15, 19:00-21:00
- Zamudio: maiatzak 22, 17:00-18:20
- Lezama: maiatzak 22, 18:20-19:40
- Larrabetzu: maiatzak 22 19:40-21:00

Inkesta betetzearren soilik parte-hartzaileek pai pai bat jasoko dute opari gisa, eta Eneko Atxaren jatetxean 2 pertsonarentzako bazkari baten zozketan sartuko dira.

Mankomunitatetik jartzen diren opariez gain, iaz bezala, Txorierriko establezimenduek euren komertzioa sustatzeko opari bat eman ahal izango dute.

Opari hori zozketatu egingo da parte-hartzaile guztien artean eta gure sareetan zabalduko da. Zure establezimenduak kanpainan parte hartu nahi badu, bidali mezu bat edo deitu **688618816** zenbakira edo **merkataritza@txorierrri.eus** helbidera idatzi.

Kanpaina gehiago ezagutu nahi baduzu, hemen duzu Txorierriko “Euskararen Lagunak” maparen esteka: <https://www.tganet.net/bo/mapaeustxorierr/>

Maiatzaren 15etik aurrera, sare sozial hauetan kanpainaren eduki digital ezberdinak zabalduko ditugu: Youtube, Instagram, Twitter eta Facebook.

Beraz, Erosi euskaraz Txorierrin!



## Mugikorra eskuan? edukiontzi marroia ere bai

**T**xorierriin, hondakinen kudeaketa gero eta erosoagoa eta modernoagoa da. Orain, zure mugikorrak beste erabilera praktiko bat du: edukiontzi marroia irekitzea, txartel fisikorik gabe.

Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateak martxan jarri duen sistema berriak aukera ematen die herritarrei frakzio organikoko edukiontziak zuzenean telefono mugikorretik irekitzeko. Horretarako, nahikoa da “Dumpster Lock Opening” aplikazioa deskargatzea (Android zein iOS gailuetarako eskuragarri) eta zure txartel elektronikoa bertan lotzea.

Behin hori eginda, edukiontzia irekitzea inoiz baino errazagoa izango da: klik bakarra, eta listo.

Sistema berriak 2025eko otsailean ezarritako txartel bidezko sarbidea osatzen du, eta helburu argia du: eguneroko keinuak sinplifikatzea, erabiltzailearen esperientzia hobetzea eta gero eta herritar gehiago inplikatzea hondakin organikoaren bereizketa egokian.

Mankomunitatearen arabera, teknologia mota hauek funtsezkoak dira hondakinen kudeaketa eraginkorrago eta jasangarriago baterantz aurrera egiteko. Azken batean, gure ohituretara egokitzen diren tresnak dira, ingurumenarekin dugun konpromisoa indartzen dutenak.

**Edukiontzi marroia: zer bai eta zer ez**  
Edukiontzi marroia behar bezala erabil-



tzea ezinbestekoa da birziklatze prozesuak arrakasta izan dezan. Hona hemen gida azkar bat:

Bota daitezke:

- Fruta, barazki, haragi, arrain eta itsaskien hondarrak (hezurrak barne)
- Arrautza-azalak eta fruitu lehorrak
- Kafe- eta infusio-hondarrak
- Landare eta lore hondakinak
- Ahozapiak eta sukaldeko paper erabilia (plastikorik gabe)

Ezin dira bota:

- Plastikoak, ontziak eta lakak
- Fardelak, konpresak eta higiene produktuak

- Errautsak eta zigarro-muturrak
- Beira

### Keinu txikiak, eragin handia

Edukiontzi marroia ondo erabiltzeak askoz gehiago dakar atzean. Hondakin organikoak behar bezala bereiztuz gero, kalitatezko konposta sortzen da, zaborte-gietara doan hondakin kopurua murrizten da eta tratamendu kostuak ere txikiagoak dira. Beste modu batera esanda: eguneroko keinu txiki batek eragin handia du gure ingurunean. Sistema berri honekin Txorierriko beste pauso bat ematen du etorkizun jasangarriago baterantz, herritarren erosotasuna eta ingurumenarekiko errespetua uztartuz.

## TXORIERRIKO BERBAK

## Soloak, ortuak eta lantzarrak

**T**xorierriin industrialde ezagunak dagozan arren, oraindino be ez dogu galdu lurragaz daukagun loturea.

Gure aldea-etxeen inguruko ortuetan erraz ikusiko dozuz tomateak, letxugak eta enparauak. Ortuari *baratzea* esaten be ikasi dogu txorierritarrok, baina ortu berbearen saillekoak ahaztu barik (ortuariak, ortuzaina, ortu santua ‘hilerria’...).

Soloak be ez dira falta gurean, arto-soloak esaterako. Hazia erein eta lantzen dan lursailari esaten deusagu *soloa*, eta *soroa* euskera batuan.

Bedarra daukan parajeari, barriz, *landea* esaten deusagu gehienetan. *Bedar-leku* berbea be entzun geinke Txorierriin. Gipuzkoan, ostera, *zelai* eta *belardi* berbak darabilez. Geuk be badarabilgu zelai berbea, baina leku laua izentetako batez be.

Urtero bedarra mozten dan lekuari, *landa* berba ezeze, *sololantzarra* eta *bedarsoloa* be esaten jako. Horrez ganera, Derion eta Zamudion “fradue” be esaten deusie.

Landu bako belardiari, bedarra berez datorren lekuari, *lantzarra* esaten jako. Eta lursail bat landu barik itxi ezkeru,

aurrerago-edo lantzeko asmoagaz, *lur arpela* ‘lur alperra’ (Sondika), *lur geldia* (Larrabetzu) edo *lantzar itxi* (Zamudio) berbak entzungo doguz. Erderaz horri ‘barbecho’ esaten jako.

Amaitzeko, azken kontzeptu bat: lehen basoa izandako lurrari *solo barria* (Lezama), *lur barria* edo *lubarria* (luberi, batuz) esaten deusagu.

Hiriguneari landa-eremua kontrajartzen jako, baserri inguruko gunea hain zuzen be. Baina garbi dago asfaltotik urteten badogu ondo zehaztu beharko dogula zertaz gabilzan.



T MIKEL REINA BARROS    ANER MENTXAKA ALVAREZ

## APURTUARTE FUTBOL TALDEA

# Gora zu. Gora gu. Apurtu

“Apurtu arte” esaten denean, normalean, ez da pentsatzen 100 urte iraungo duenik. Egun gutxi batzuk izaten dira bakarrik, hilabeteak akaso. Horrela da. Agian, Apurtuarte bera izena izatekotan bakarrik bete daiteke esaldia: Apurtuarte Futbol Taldeak 100 bete dituelako. Maiatzaren 23an osatuko dute urteurreneko ospakizun handia, egun osoko egitarauarekin, Arteaga futbol zelaietan.

**A**rin esaten dira 100 urte. Urteurren ezin borobilagoa. Esan bezala, zaila izaten da, ezinezkoa ez esatearren, apurtzear dagoen zerbait hainbeste denbora irautea. 100 urtetan, zelan ez, arrakalak izan ditu, baina horrek ez du esan nahi apurtzear dagoenik, ez behintzat gaur egun.

1926ko abuztura arte joan beharra dago klubaren hastapenera arte heltzeko. Hain zuzen ere, gure inguruan hain ohikoa izaten den bezala, lagunartean atera zen taldea eratzeko ideia. Beroaldi horietako batean, non guztia ideia ona dirudien. Asua eta Erandiogoikoako lagun talde bat futbol klub bat sortzeko ideiarekin

—  
**“Arteaga,  
 Apurtuarteren egoitza  
 izateko eta jokatzeko  
 zelai bat izan zezan  
 eraiki zen”**  
 —

elkartu ziren. Denak horretarako bazauden ere, beti egon behar da ideia besteez bezain ondo ikusten ez duen pertsonaren bat. “Zehazki, pertsona hori Juan Egaña izan zen”. Egañaren ustez, horre-

lako proposamenetako askotan gertatu ohi den bezala, ideiak askorik iraungo ez zuela esan zuen. Historiarako esaldia bota zuen: “Apurtu arte aguanta dadila”. Horregatik erabaki baitzuten Apurtuarte izena jartzea klubari.

Idea zoro horrek 100 urte bete ditu. “Hasieran pentsatzen zena baino askoz askoz gehiago iraun du proiektuak, ametsik onenean ere ez genuen pentsatzen horrelako zifretara helduko zenik. Izan ere, Apurtuarte Txorierriko futbol talderik zaharrena da. 1926ko abuztuaren 20an sortu zen ofizialki eta Bizkaiko Futbol Federazioan 1927-1928 denboraldian eman zuten izena. Asuan kokatuta



zegoen Leorbaso futbol zelaian hasi ziren jokatzeko. Garai gorabeheratsu horiek ez ziren inondik inora errazak izan. 1936an Espainiako Gerra Zibila hasi zenean klubak lehiatzeari utzi behar izan zion hainbat urtez, 1943an itzuli ziren zelaira.

Baina Bizkaia etengabeko bilakaeran zegoen, industria zen nagusi eta horrek ere eragina izan zuen eskualdean. Industria garapen horrengatik, Leorbaso futbol zelaia desagertu egin zen 1956an eta Apurtuarate futbol zelai barik geratu zen. Bere partidak C.D. Sondikaren zelaian jokatu behar izan zuten, horrek suposatzen zuen guztiarekin. “Txapelketako partida bakoitzeko 125 pezeta zahar ordaindu behar ziren, eta hori gutxi ez, eta klub horretako bazkideentzako beste pribilegio batzuen trukeak ere bazeuden”.

## “Sondikan jokatzeko, ligako partida bakoitzeko 125 pezeta zahar ordaindu behar genituen”

Hain zuzen ere, 50eko hamarkada izan zen Apurtuarteren urrezko aroa kirol esparruan, hamarkadaren amaieran batez ere. 1957an Espainiako hirugarren mailara igotzea lortu zuten: “Igoera historikoa izan zen, igo bakarrik ez, hiru urtez maila mantentzea lortu baitzen jaitsi baino lehen”. Jaitsieraren os-

tean dena etorri zitzaizen gainera. “Klubak ez zuen jokatzeko zelairik aurkitu eta bi denboraldiz lehiatik kanpo egon behar izan zuen. Epe horren ondoren, txapelketetara itzuli ziren, baina behebeheko mailetatik hasi behar izan zuten berriro bidea, ordura arteko lorpen guztiak atzean utziz”.

Beraz, futbol zelaia izan da historikoki Apurtuarteren burukomin handienetako bat. Horrengatik, arnas luzea hartu zuten 60ko hamarkada hasieran. Loiuo San Jose Artesano futbol zelaian jokatzeko hasi ziren, eta bertan bizi izan ziren 40 urte inguruz, 2002an Erandiogoikoako Arteaga zelaia inauguratu zuten arte. “Zelai hau, Apurtuarteren egoitza izateko eta Erandioko udalerrian jokatzeko zelaia bat izan zezan eraiki zen”.

Gorbela, 7 Behea  
48170 ZAMUDIO (Bizkaia)  
Tel.: 94 452 21 41  
Faxa: 94 452 21 42  
www.gestionzamudio.com  
gestionzamudio@gestionzamudio.com

Aholkularitza Fiskala  
**Gestión Zamudio**  
Jon Vázquez García  
AKTUARIO-EKONOMILARIA



Apurtuarte futbol taldearen 1928, 1968 eta 1971ko talde argazkiak.

Klubeko ordezkariak onartzen dute egoitza izateak bestelako ateak zabaltu dizkietela, eta hori oraindik beste talde batzuekin elkarbanatzen dituztela. Lehen taldea Lehenetasunezko Mailan dago, jaitsiera postuetatik erabat urruntzeko azken ahalegina egiten. Hiru jardunaldi besterik ez zaie geratzen denboraldia amaitzeko. Iaz lortu zuten igoera lehen mailatik eta aurtengo helburua nagusia maila mantentzea dela diote arduradunek. Baina ia are eta garrantzi gehiago ematen ari dira harrobiko lanari. Gaur egun Apurtuarterek adin guztietako 180 jokalaririk inguru ditu. Harrobian bederatzita talde dituzte.

#### HARROBIA ZAINDUZ

Orain harrobiko lana indartzeko lanean daude. Maiatzean ate irekien jardunaldiak antolatu dituzte umeak eta gurasoak kluba ezagutzeko aukera izan dezaten. 2008 eta 2021 urteen artean jaiotakoentzako jardunaldiak dira eta maiatzeko martitzen eta eguen guztietan osatuko dituzte lan saioak Arteaga futbol zelaian. “Apurtuarten entrenatzeko aukera eman nahi diegu, gure entrenatzaileak ezagutu eta klubeko talde giroa barrutik bizi ahal izateko aukera eman”. Informazio gehiagorako Instagram kontutik edo apurtuar-teclub@gmail.com posta elektronikora idaztea eskatu dute.

Hori gutxi ez, eta udako kanpua antolatzen dabilta. Kasu honetan, 2010-2021 urte bitartekoentzako kanpua da. Izen ematea zabalik dago ekainaren 7ra arte eta sare sozialetan jarrita duten QRa bezte osatu daiteke izen ematea. Bi txanda

antolatu dituzte, ekainaren 22tik 26ra eta ekainaren 29tik uztailearen 3ra. 09:00etatik 14:00etara da kanpua, Arteaga futbol zelaian. Astebeteko prezioa 110 eurokoa da eta bi astea 200 euro, prezioaren barruan daude hamaiketako arropa eta aseguruak.

## “Bideoklupan, belaunaldi desberdinetako kideak agertu behar ziren 100 urteko historia erakusteko”

#### ERESERKIA

100 urtek askotarako ematen dute. Sor-kuntza lanak hasteko ere, aitzakia izan daiteke, aitzakia borobil bat, erabatekoa gainera. Horregatik, Apurtuarte Futbol Taldetik klubeko ereserkia sortzeko une ezin aproposagoa zela erabaki zuten. Baina ez bakarrik ereserki hutsa, hau da, letra eta doinua, baita bideoklipa ere. Sor-kuntza lana erabatekoa, borobila, urteurrena bezala.

Horretarako, inguruko sustraietara jo zuten. Batetik, doinua jartzeko Taberna Ibiltariko kideengana jo zuten. Bestetik, bideoklipa grabatzeko Jon Goikuriarengana. “Behin martxan jarrita, dena nahi genuen, abestia eta bideoa”.

Hiru egunetan osatu zuten grabazioa, hiru toki desberdinetan: Arteaga futbol

zelaian, Erandiogoikoko Andra Mari elizako arkupe eta kanpoaldean eta Mungiako estudio batean. Jon Goikuriak argi izan zuen bideoak nondik jo behar zuten: “Belaunaldi desberdinetako kideak agertu behar ziren 100 urteko historia hori erakusteko”. Oso eskertuta agertu da sortzailea klubaren aldetik jasotako laguntza eta koordinazio guztiagatik. Azkenean kontuan izan behar da horrelakoak egiten ohituta ez dagoen jendea dela, baina irribarre batekin dena da errazagoa”.

#### EGITARAU OPAROA

Maiatzaren 23an osatuko du Apurtuarterek 100. mendeurrenako ospakizun nagusia. Eta zelan gainera. Bete-beteko eguna antolatu dute. 12:00etan klubeko eta Athleticeko veteranoek lagunartekoa jokatuko dute. Ondoren, denak ala denak herri bazkarian elkartuko dira. Sarrerak salgai daude Dandakan, Celesen eta futbol zelaian. Helduen tiketak 35 eurotan daude salgai eta umeek 22 eurotan. Bazkalostea Taberna Ibiltariak girotuko du. 22:00eta hasiko da Su Ta Gar taldearen kontzertua eta 00:00etatik aurrera Oreka taldearen erromeriak luzatuko du gaua.

Baina maiatzaren 23ko ekitaldi handiaz gain, futbol taldekoek asko gehiago daukate buruan. Hain zuzen ere, urtarilaren 3an aurkeztu zituzten ekitaldietako batzuk. Helburua argia izan da: urte osoko plangintza bat osatzea, hila-bete bakoitzean ekintza bat osatzeko. Gauzak horrela, orain arte inauterietan edota Korrikan parte hartze berezia izan dute. Martxoaren 8ko Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira ere



Karmele Ibarrondori omenaldia egin zioten. “Herriaren eta klubaren zutabe izan dira Ibarrondo eta oro har klubean lan egin duten emakume guztiak, eta gure aldetik esker ona adierazteko modua izan zen”.

Aurrera begira ere askotariko ekimenak dituzte antolatuko dituzte, hemen ere ingurukoak nahi izan dituzte. Adibi-

dez, ekainean, Erandiogoikoako jaien baitan, beteranoen partida bat jokatu nahi dute eta jarraian, lehen taldeak igoera lortzen duen bezala, traktore gainean herriko kaleak zeharkatu. Uztailean, Asuako jaietan, beti ondoan dituzten Goiherrri sokatira taldearekin eta Goialde dantza taldearekin adiskidetzat ekitaldi bat egingo dute.

Horrez gain, beste hainbat ideia dituzte buruan. Apurtuarteren historiaren inguruko solasaldi bat antolatu nahi dute historiagile batekin eta Erandiogoikoako kultur etxean aspaldiko argazki, dokumentu edota arropen erakusketa bat jarri. Azkenik, urte eta urteurrena amaitzeko, abenduan, bertso afaria egingo dutela aurreratu dute. ●

*Ekin eta ekin 38 urtez. Publikoa, irekia, guztiontzat.*



**TXORIERRIKO UDAL  
EUSKALTEGIA**



**BERBALDIA**

## **Pertsona izenen euskal historia / Euskal pertsona izenen historia**

Euskaltzaindiko **Mikel Gorrotxategiren** eskutik

**Maiatzaren 14an**

**Saio bitan: goizeko 10etan eta arrastiko 6etan**

**Txorierriko Udal Euskaltegian bertan**

Txorierri etorbidea 9, 1. lokala-erdisotoa



## DERIOKO JAIK

# Behin formatu egokia aurkituta, hobe ez aldatu

Herrikoiak. Parte hartzaileak. Alaiak. Modu askotara deskribatu daitezke Derioko San Isidro Jaiak, baina benetan ulertzeko eta disfrutatzeko ez dago jaietara hurbiltzea baino aukera hobeagorik. Aurten, maiatzaren 9tik 17ra ospatuko dituzte adin eta gustu guztientzako askotariko ekintzekin.

**D**erioko San Isidro Jaiak uda giora hurbiltzen zaituzten jai horietakoak dira. Askorentzako oporrak gero eta hurbilago daudela sentitzeko aukera da. Jaietako giro parte hartzaile, osasuntsu eta herrikoiak horretarako aukera ematen dute.

Are gehiago duela hiru urte bi asteburuetako formatua jarri zutenetik. Argi dago erabateko arrakasta izaten ari dela. Horrelakoetan, behin formatu egokia aurkituta, hobe izaten da ezer ez aldatzea. Ondo dabilena, hobe da horrela uztea. Hirugarren urtez jarraian errepikatuko dute egitaraua. Hau da, lehen

asteburuan, maiatzaren 9an eta 10ean, herriko elkarteek ekintzak antolatuko dituzte eta bigarrenean, maiatzaren 14tik 17ra, ekimen nagusiak ospatuko dituzte.

Hain zuzen ere, maiatzaren 9an emango diete hasiera jaietako Derioko ekintzarik herrikoiei eta parte hartzaileena: herri azoka. 11:00etatik 15:00etara osatuko dute eta askotariko eskaintza elkartzeko dute kantxa estalietan. Herriko eragileek beraien lana ikustarazteko aukera ezin hobea izango dute. Hurrengoko elkarte eta taldeek parte hartuko dute: Marikobaso Espazioa, Marrazten taldea, Gure Señeak Elkarte, Tximintz

Euskara Elkarte eta Haszten Elkarte. Gainera, artisauen azoka ere egongo da, baita taloen txosna ere.

Arratsaldean ere giro parte hartzailea nagusituko da kalejiran Kukudantza, Piperdun eta Lainomendiren eskutik. Maiatzaren 10ean, kirola izango da nagusi. Untza mendi taldeak antolatuta, 38. herri ibilaldia egingo dute, 08:00etan aterako dira nagusiak eta 09:00etan umeak. Kiroldegian, berriz, kirol jardunaldiak osatuko dituzte herriko hainbat kirol talderen parte hartzearekin: DKT Sport Team CD, Txorierrri Basketland SK, Miragarri Taldea, Pozgarri FST, CD Derio eta

Familia osorako kalitatezko arreta, zure esku

Zerbitzu BERRAK  
Logopedia  
Podologia  
Kiroprasajak

**clínica dental ZAINDUZ horts klinika**

Txorierrri etorbidea, 9 - Lonsa | Antzaga eraikina | 48160 DERIO  
94 454 01 01 | 657 79 54 45  
info@dentalezainduz.com | www.dentalezainduz.com

**aldeko one**  
horts klinika  
Tel.: 94 454 15 87

Anuska Prieto Aguilar  
Odontologoa

Urbe 7, beheak  
48160 DERIO (Bizkaia)

- Especialitate guztiak zentro bakar batean
- Aurrekontua doan
- Especialitatea: umeak

**ELORRIETA**  
INSTALACIONES ELÉCTRICAS

ETXE- ETA INDUSTRIA-ELEKTRIZATEA  
INSTALAZIOAK, MANTENTZE-LANAK,  
KONPONKETAK...  
MATERIAL ELEKTRIKOAK SALGAI

info@elorrietainstalaciones.com 639 582 547  
Urbe kalea 12 beheak · Derio 944 540 386

## EMAUS, JAIETAKO PREGOILARIA



# “Oso eskertuta gaude gure lan ikusezinari eman dioten erakusleihoagatik”

### Noiz eta nola jaso zenuten Derioko San Isidro jaietako pregoilariak izateko proposamena?

Sorpresa ikaragarria izan zen guretzako, baina aldi berean ardura handi bat ere bai. Bertigo sentsazio hori izan genuen, baina oso eskertuta gaude. Justu aldaketak izan genituen lan taldean eta horregatik denon artean proposamena aurrera eramatea erabaki genuen. Talde moduan egin nahi izan diogu aurre.

### Zein izan zen zuen lehen erantzuna?

Oso pozgarria egia esan. Gainera, denbora generaman arlo komunitarioan ere lanketa egiten hasia ginen. Udalarekin eta Jai Batzordearekin harremana sendotu nahi genuen eta pregoilari izateak uste dugu prozesu hori arindu eta hobetu dezakeela. Abiapuntu bikaina izan daitekeela uste dugu.

### Beraz, momentu ezin hobean iritsi zaizue aukera?

Bai, hori da. Aukera bikaina da egunerokotasunean egiten dugun lan guztia erakutsi ahal izateko. Batez ere, Derioko egunerokoan ere sartu nahi garelako eta herriko eragileekin hartu-emana osatu. Bozgorailu handia da guretzako. Urtean zehar antolatzen ditugun ekintzetako askok ez dute horrelako oihartzunik izaten. Guretzako komunitatea oso garrantzitsua da eta alde horretatik gure proiektua ezagutzea eta ezagutaraztea ezinbestekoa da.

### Zer esan nahi du zuentzako pregoilari izatea?

Inflexio puntu bat izan daiteke. Azken batean, gizarte bazterketako egoeran dauden pertsonen bazterketa horretatik ateratzeko erakusleiho bat izateko aukera bat da. Ikusiezinak ikustarazten gabe izateko. Komunitatearen aldetik errekonozimendu bat jasotzea, baita aitortza bat ere egunero egiten dugun lan guztiari.

### Horretarako, ez dago herri mailan erakusleiho hoberik.

Hori da, eta bere momentuan iritsiko zaigu beldu eszeniko hori. Ilusio handia dugu urteko egun handienetako batean gure proiektua protagonista izatea. Oraindik lantzeko dugu zer eta zelan esan nahi dugun, baina lanean gabe izateko aukera baliatu nahi dugulako.

### Mezuari dagokionez, zer kontatu nahi duzue?

Erabaki behar dugu oraindik, baina zer egiten dugun azaldu nahi dugu, modu arin eta irisgarri batean. Esker oneko mezua gailenduko da, oso eskertuta gaudelako gure lan ikusezinari eman dioten erakusleihoagatik. Gainera, garrantzitsua iruditzen zaigu formatu aldetik ere arina izatea zentzu guztietan. Azkenean, Emaus-en egiten duguna azaldu nahi dugu. Herriaren parte izan nahi dugula aldarrikatu nahi dugu.

**sarraila-denda Txorierri**  
ADITIAK SARRAILAGINTZAN ETA SEGURITASUNEAN

Alain Pomposo Zarate info@cerrajeriatxorierri.com  
605 100 800 www.cerrajeriatxorierri.com

**RADIO TAXI FEMADE** Zure taxi, Txorierrikoa

Zamudio - Derio - Sondika - Lezama - Larrabetzu - Lolu

24h 94 480 09 09

ERRESERBAK:

www.taxisaeropuertoblbao.com

**DESKARGATU APP-A**  
**TAXI FEMADE**



laz, herriko kirol taldeek antolatutako kirol jardunaldia.

Taekwondo Doyan. Arratsaldean, Laino- mendik euskal dantzak eskainiko ditu herriko plazan.

Ohi bezala, eguenean emango diote hasiera bigarren asteburuari. Batetik, 2025eko umeei ongi etorri jaiak egingo dute, eta bestetik, pintxo-potea Primo Bayorekin. Maiatzaren 15ean, San Isidro Egunean, egingo du eztanda jaiak. Derion jai eguna izanik, goizetik dago zeregina. Umeei, adibidez, puzgarriak, jolasak eta marrazki lehiaketa dituzte, frontoian.

18:30ean derioztar denak ala denak prest egongo dira herri kalejirarako. Zaprist! elektrotzarangak izango du jai- tsiera girtzeko ardura. Kontuak kontu

19:00etarako plazan egon beharko direla pregoia entzun eta jaiak hasiera ofizia- la emateko. Hortik aurrera jai giroak ez du etenik izango, kontzertuek ez dute horretarako tarterik utziko: El Traste- ro, Sukena, Biznaga eta Dj Baalda. 90ko hamarkadako rock klasikotik hasi, pop euskaldunetik eta punketik pasatuz eta gaur egungo abestietara helduko dira txosnagunean.

Sanisidroetako beste ekintza nagu- sietako bat, jenderik gehien elkartzen dituenetako bat bai behintzat, paella txapelketa da. Derioztarrak goizean goi- zetik kalera aterako dira, izan ere, egun osorako toki egokia hartzeak berebiziko garrantzia baitauka. Xaiborrek girotuko

du prestaketa eta 15:00etarako bazkari herrikoian elkartuko dira. Bazkalostea Yogurinha Borovak eta Aurori Badiola- ren eskuetan egongo da, bingo musika- tua prestatu baitute. 17:30ean egingo dute paella txapelketako sari banaketa. Nagusiek ere haien tartea izango dute txitxarrilloekin eta Ipar-Alde abesbatza- ren kontzertuarekin.

Gazteak, motorrak ondo berotuta, kua- drillen arteko txapelketak jokatu dute herriko hainbat txokotan eta musika- ren laguntzarekin: Pakearen enparantza, Urkiola aparkalekua, Sollube kalea eta Besaide plaza. Hain zuzen ere, jai giroak, behin hasita, ez du etenik izango. Aurten, berriz ere, kontzertu handiak erakartzeko ahalegina egin dute. Horren adibidez da gaur egun denen ahotan dagoen La Txama taldea. Beraien doinu mexikarrekin hartuko dute txosnagunea, cumbia, cor- ridoak eta rantxerak nahasten baitu- tuzte emanaldietan. Oreka erromeriak beti-betiko euskal abestiak interpreta- tuko ditu eta DJ Ivan Alberdii izango da gaua ordu txikietara arte luzatzeko arduraduna.

Maiatzaren 17an 29. elikagai eta es- kulangintza azokaren txanda izango da, 10:00etatik 14:00etara, Kultur Birika in- guruan. Euskal tradizioekin jarraituz, emakumezkoen pilota jaialdia jokatu- dute frontoian, 17:00etatik aurrera. Egi- tarauko azken ekintzak txosnagunean elkartuko dira, Piperdun eta Kukudan- tzaren dantza erakustaldiekin eta txoko- latadarekin San Isidro jaiak hurrengo ur- tera arte agurtu aurretik. ●

**ANIMAZIOAREN MUNDU HARRIGARRIAN  
AMESTEN DUZUN GUZTIA ESKURA DUZU  
IRRIKAZUREKIN!**

APAR-FESTA · PUZGARRIAK · ESKOLAKO JAIAK  
TAILERRAK · ROBOTIKA · DISKO-FESTA

**irrikazu**  
ANIMAZIOA

irrika@irrikazu.com · 656 786 959 · 688 892 013  
[www.irrikazu.com](http://www.irrikazu.com)

**Umore Ona**

Kafetik pintxoetara,  
presarik gabe

umoreona\_derio Erdiko kalea 6 DERIO

# DERIOKO JAIAK

ISIDRO DEUNA 2026  
MAIATZAK 9 - 17

## 9 ZAPATUA / SÁBADO

- 11:00-15:00 Herri azoka / Feria popular
- 19:00 Kalejira KUKUDANTZA, PIPERDUN, LAINOMENDI

## 10 DOMEKA / DOMINGO

- 08:00 XXXVIII. Herri ibilaldia / XXXVIII. Marcha popular
- 11:00-14:00 Kirol jardunaldiak / Feria del deporte
- 18:00 Euskal dantzak LAINOMENDIrekin

## 14 EGUENA / JUEVES

- 18:00 2025eko umeen ongi etorri jai
- 19:00 Pintxopotea - Primo Bayo

## 15 BARIKUA / VIERNES

- 11:00-13:00 Ume eta gazteentzako jolasak / Hinchables y juegos infantiles
- 12:30 Meza / Misa
- 12:30-13:30 Marrazki lehiaketa / Concurso de dibujo
- 18:30 Herri Kalejira / Bajada popular  
Zaprist! elektrotzaranga
- 19:00 Pregoia eta txitxiburduntzia
- 22:00 Kontzertuak  
EL TRASTERO  
SUKENA  
BIZNAGA  
DJ BAALDA

## 16 ZAPATUA / SÁBADO

- 12:00 XAIBOR diskofesta (*Sollube kalean*)
- 12:00 Paella txapelketa / Concurso de paellas
- 15:00 Herri Bazkaria / Comida Popular
- 16:30 Yogurinha Borova & Aurori Badiola - Bingo musikatua
- 17:30 Paella txapelketaren sari-banaketa / Entrega de premios del concurso de paellas
- 18:00 Txitxarrilloa (*Nagusien Etxea*)
- 19:00 Kuadrilla txapelketa - Poteoa
- 19:30 IPAR-ALDE abesbatza
- 19:30-21:30 Musika-guneak herrian zehar / DJs por el pueblo (*Pakearen enparantza, Urkiola aparkalekua, Sollube kalea eta Besaide plaza*)
- 23:30 Kontzertuak  
LA TXAMA  
OREKKA ERROMERIA  
DJ IVAN ALBERDII

## 17 DOMEKA / DOMINGO

- 10:00-14:00 XXIX. Elikagai eta eskulangintza Azoka / XXIX. Feria de alimentación y artesanía
- 17:00 Emakumezkoen pilota jaialdia
- 18:00 PIPERDUN eta KUKUDANTZA dantza erakustaldia / exhibición de baile
- 19:00 Txokolatada
- 20:00 Jai amaiera / Fin de fiestas

### LEKUA / LUGAR

- Txosnagunea - Kantxa estaliak / Canchas cubiertas
- Kultur Birika
- Polikiroldegia
- Frontoia
- Herriko plaza
- Isidro Deuna Eliza / Iglesia San Isidro
- Aldekone auzoa

\*Euria bada ekitaldiak frontoian edo kantxa estaliatan /  
En caso de lluvia en el frontón o en las canchas cubiertas



Derioko elkarte eta talde askoren elkarlanean  
En colaboración con asociaciones y grupos de Derio

Antolakuntzak egitaraua aldatzeko eskubidea izango du  
La organización se reserva el derecho de modificar el programa

## TEKNOLOGIA

Amesten al dute jeneralek  
Adimen Artifizialarekin?

FREEPIK / JANNOON028

XABIER DIAZ

@xa2\_baraka@mastodon.eus

**T**xundituta uzten naute Napoleonen garaiko batailek, non uniforme koloretsuak dituzten soldaduek, lerro paraleloetan eta aurpegira begira, tiro desarrak botatzen dituzten elkarrir liturgia hilgarrian. Lehen Mundu Gerrako metrailetek, taktika horiekin amaitu zuten, eta nahiz eta gerrara doazen gixajoak betikoak izan, egun, armadek kolpeen hartu emana ekiditen dute aire zein komando ekintza kirurgikoagoen mesedetan. Teorian, norberaren bajak gutxiago izango dira, beraz, lortutako helburuak salgarriagoak, komunikabide eta sareak ere bataila eremu baitira. Ah! Eta, bide batez, albo-kalteak ere, ustez, mugatuagoak.

Horrelako operazioek baina, presetakuntza, azpiegitura eta antolaketa sakonagoak behar dituzte, eta bere denbora behar dute. Hasteko, informazio zehatza, eguneratu eta fidagarria behar da, aztertuta, sailkatuta eta neurtuta: "inteligentzia" deritzotena. Arrakasta edo porrotaren, eta eguneratutako datuen arabera, beste ekintza batzuk abiatzea erabaki behar da ahal den azkarren. Etengabeko informazio fluxu horrek, inteligentzia elikatzen du agintari militarrek erabakirik onenak har ditzaten. Datu kopuru ikaragarria prozesatu egin behar da, ordea: denbora behar da.

2026ko otsailaren 28an, Ameriketako Estatu Batuek eta Israelek hainbat aire ekintza egin zituzten Iranen, azpiegitura militarrek eta gobernu guneak erasotuz. Ali Khamenei buruzagi gorena eta Irango beste funtzionario batzuk hil eta biktima

zibilak eragin zituzten, tartean Shajare Tayebé lehen hezkuntza eskolako ikasle eta irakasleak (168 pertsona baino gehiago). Lehenengo fase honetan, Israelek bakarrik 500 helburu militar jo izana argitaratu zuen.

Aipatu bezala, horrelako eraso bakoitzak, bere berezko plangintza behar du, eta hainbeste hain azkar egitea ez da ahuntzaren gauerdiko eztula. Adituen arabera, ezinezkoa da espioitza masiboa eta propio garatutako adimen artifizial barik: Maven.

Project Maven 2017an abian jarritako EEBBko Defentsa Sailaren ekimena da. Hasieran, ikusmen artifizialean zentratu bazen ere, irudien eta bideon prozesamenduan gobernu agentzien inteligentziarako (egun aplikazio ugari biltzen ditu) hala nola, operazio militarren laguntza, analistentzako datuen integrazioa eta azpiegitura eta aktibo militarren identifikazioa eta kategorizazioa. Dronen, sateliteen eta beste sentsoere batzuen datuak integratzen ditu, helburu potentzialak markatu eta giza analistei aurkezteko erabakiak har ditzaten.

Hasieratik zuri beltzak izan dituen proiektua da, zaintza eta espioitzaren arteko mugak inoiz ez baitira argiak izan, ezta horrekin lotuta egon diren enpresen arduradunen eskrupuluak ere.

Googleko milaka langileek protesta egin zuten konpainiaren adimen artifiziala proiektu honetan pertsonak hiltzeko erabili zitekeelakoan, enpresaren adimen artifizialaren erabilera etikoaren gidalerroen kontra. Atzera egin zuen, bai-

na honezkero, badabiltza antzerako beste garapen militar batzuetan.

Maveneko hasierako garatzaile nagusia izan zen Anthropic-ek, horren baitan Claude adimen artifiziala integratu zuen, eta muga batzuk ezarri zituen: ezin izango zen etxeko zaintzarako eta arma guztiz autonomoetarako erabili. Gobernuak murrizketa horiek kentzeko eskatu zionean uko egin zion, eta horren ondorioz, "hornikuntza-katearen arrisku" gisa izendatu zuen eta EEBBetako kontratista, hornitzaile eta bazkide militar guztiei enpresarekin negoziarioa egitea debekatu zien.

Orain, Trumpen aliatu garrantzitsuenetakoa den Peter Thielek sortutako Palantir da Maevenen arduradun nagusia, eta eztabaida handia sortu da Gazako eta Iraneko gerran izan duen rolean. Pentagonoak dio edozein ekintza gauzatzerakoan azken erabakia beti dela arduradun militar batek hartutakoa, baina adituek zalantzan jarri dute horrela denik. Arinago aipatu bezala, sistema azkarrenak erabilia ere, denbora behar da eta ez dute uste ekintza kopurua kontutan hartuta egon denik.

Adibide bezala, Shajare Tayebéko eraso jartzen dute. Adimen artifizialak azpiegitura militar etiketa jarri zion eskolari, eta ekintza proposatu. Gizaki batek hartu bazuen erabakia, ez zen akatsaz ohartu?

'Paths of Glory' filmean, Stanley Kubriek garbi uzten du ezin direla erabaki militarrek, ez soldadu, ez biktimekiko inongo enpatiarik ez duten jeneralen esku utzi. Egokia da orduan inongo sentipenik ez duen algoritmo baten menpe uztea? ●



FREEPIK

## SOSTENGU SAREA

# Ikusten ez den mina

**MIREIA SOBA MARTINEZ**

Psikologoa · @ametsapsikologiazentroa

**B**adago ikusten ez den min bat. Ez du arrastorik uzten, ezin da erakutsi, ez da agertzen inolako proba medikotan. Hala ere, hor dago, sentitzen da eta pisua dauka.

Min fisikoa denean, dena errazagoa ulertarazten da. Badago zerbait zehatzta, ikusgarria. Baina mina barruan dagoenean, dena nahasiago bihurtzen da. Zaila egiten da azaltzea, zaila hitzetan jartzea. Nola azaldu bularrean geratzen den korapilo hori, arrazoirik gabeko nekea, edo gaizki zaudela sentitzea, baina zergatik ez jakitea?

Min emozionalak ez du beti forma argirik. Batzuetan galera batetik, errefus batetik edo desilusio batetik sortzen da. Beste batzuetan, aldiz, abisurik gabe agertzen da, dena estaltzen duen laino baten moduan.

Kanpotik askotan erraza dirudi. “Ez da hainbesterako”, “Animatu”, “Pasatuko da”. Baina barrutik ez du horrela funtzionatzen. Ez dago sentitzeari uzteko botoirik.

Eta orduan, gorputza hasten da hitz egiten. Bularra estutu egiten da, eztarria ixten da, urdaila uzkurtu egiten da, lo egitea kostatzen da, baita atsedena hartzea ere. Burua ez da gelditzen eta ha-

sieran emozionala zirudiena, fisikoki ere min ematen hasten da.

Agian, horregatik da hain zaila min mota hau eramatea. Ikusten ez delako, beti ulertzen ez delako eta askotan norberak ere ez dakielako nola azaldu, gehiegizkoa dirudien beldurrez. Eta horretan ere, askotan nahi gabe, huts egiten dugu besteok.

Gure inguruko norbait horrela dagoenean, konpondu nahi izaten dugu: hitz egokiak bilatuz, aholkuak emanez, mina arintzen saiatuz. Baina askotan, horrek kontrakoa lortzen du, ulertaezina sentitzen da beste pertsona.


Min hori laguntzea ez da konponbidea izatea, baizik eta ez ukatzea, entzutea eta egotea besterik ez da. Esaldi sinpleek, “ulertzen dut min egiten dizula”, “zentzua du horrela sentitzea” edo “ez dakit zer esan, baina hemen nago”, balio handiagoa izan dezakete edozein aholku perfektuk baino.

Balioztatzea ez da gehiegizkoa izatea, besteak sentitzen duena benetakoa dela aitortzea baizik.

Min emozionala ez da gutxiago benetakoa ikusten ez delako. Eta askotan, astunena da. ●

**SARRIKOLA OGITEGIA**

Euskal pastela  
Basernko ogia  
Bizkotxoak  
Hainbat tarta

 Sarrikola, z/g Larrabetzu  
Tel.: 94 455 83 37  
619 78 58 84

KAFETEGIA · OKINDEGIA

**LA MODERNA**

Egunero, 06:00etatik zabalik

Aretxalde, 64 · LEZAMA · 946 095 091

**E.Bilbao Bidaiak** 

autobus zerbitzuak

eneko@bilbaobidaiak.eus  
663 231 001

[www.bilbaobidaiak.eus](http://www.bilbaobidaiak.eus)



EMAUS

## Gorroto diskurtsoen aurrean, hezkuntza eta komunitatea saretzen

JONE GOITISOLO URIARTE

Komunitatearen eraldaketarako teknikaria

**E**maus Gizarte Fundazioak, beste urte batez, Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) Leioako Gizarte Hezkuntza graduako ikasgelan sartzeko aukera izan du, Monike Gezurgak bere ikasgaiari atxikituriko ikaskuntza-zerbitzua metodologiaren eskutik.

Bigarren mailan dauden etorkizuneko gizarte hezitzaile hauek gorroto diskurtsoen inguruan aritu dira lanean Monikeren ikasgaietan. Haietako bostek beregain hartu dute Derioko Gurea Aretoan hileroko azken ostiraletan ospatzen den Sareak Zabaltzen zinema komunitarioan parte hartzeko erronka. Hala, hiruhilekoan zehar ikasgelan landutako edukiak pantaila handira ekartzen saiatuko dira maiatzeko saioan, partaideekin batera eztabaidarako espazio bat sortuz.

Zentzu honetan, azpimarratzekoa da gorroto diskurtsoak ez direla fenomeno isolatuak eta, beraz, ezinbestekoa dela ikuspegi integrala garatzea, non hezkuntza-erakundeek, unibertsitateek, gizarte-eragileek eta herritarrek elkarrekin lan egiten duten.

Egunerokotasunean gizarte bazterkeria egoeran dauden pertsonen ondoan egoteak, argi erakusten digu unibertsitatean

mintzagai izan dituzten diskurtso hauek duten boterea ez dela inoiz neutroa izan eta gaur egun inoiz baino eragin handiagoa dutela pertsonen bizitzetan.

Izan ere, sare sozialen hedapen azkarrak, informazio-iturri ugarien arteko lehia etengabeak eta polarizazio politiko-sozialaren gorakadak testuinguru konplexu bat sortu dute gure gaur egungo gizartean, diskurtso sinplifikatuen bitartez gizarte-kohesioa arriskuan jarriz eta aurreiritzi eta estereotipoak bolo-bolo errotuz.

Gorroto diskurtsoak ez dira soilik jatorriagatik, identitateagatik edo sinemenengatik pertsona, kolektibo edo komunitate bati buruz esan edota burutu daitezkeen irain eta erasoak. Gizartearen termometro bat dira, erakusleho bat, non aditzera ematen den komunitate batek zenbateraino onartzen duen desberdina dena eta zer modutan kudeatzen duen arrotz gisa hautematen duen horrek sorrarazten dion beldurra.

Azken boladan bizi dugun egoera honen aurrean, pentsamendu kritikoa garatzea premiazkoa bilakatzen da, hauxe izanik gorroto diskurtsoekiko prebentziorik eraginkorrena. Zentzu horretan,

eskola, unibertsitate eta bestelako akademiak funtsezko espazio bilakatu dira. Eta ez bakarrik testuinguru ezberdinetako gazteak biltzen dituelako, baizik eta beste ulertzeko gaitasuna modu sistematiakoan landu daitekeelako.

Hezkuntzak, edukiak transmititzetik haratago, informazioa interpretatzen, estereotipoak zalantzan jartzen eta giza duintasuna bere adierazpen guztietan aitortzen irakatsi behar du. Izan ere, norbanakoak joera ezutuak antzematen edo emozio manipulatuak identifikatzen ikasten duenean, bazterketa-diskurtsoekiko ahulagoa izateari uzten dio, arrazakeria, LGTBIQ+fobia, xenofobia edo matxismoa bezalako marrazoak elikatzeari uko eginez. Akademiak esperientziak eskaini behar ditu, non ideia ezberdinak entzun, eztabaidatu eta kontrastatu, elkarbizitza egoera natural bat baizik, eraikuntza kolektibo bat dela ulertaraziz.

Giro soziala gero eta bortitzagoa den une honetan, hezkuntza behar dugun kontrapisu izan daiteke eta komunitatea babesgune bat. Pentsamendu kritikoa heztea ez ditu soilik gorrotoaren biktima izan daitezkeenak babesten, gizarte osoa sendotu baizik. ●

## ARRAKALA DIGITALA



FREEPIK / PCH.VECTOR

# Aurrerapen teknologikoak medikuntzan

**PATRICIA BARRON SAN BLAS**  
EHUko irakaslea eta ikertzailea  
gizarte zientzietan



**D**uela lau hilabete, Zeelanda Berrian nengoela, belauna hautsi nuen, eta ordutik hona medikuntza modernoaren unibertsoan murgiltze pertsonal eta sakona bizitzeko aukera izan dut. Gizarte-zientzian profesionalki jarduten dudanez, egokia iruditu zait esperientzia intimo eta esanguratsu honi gogoeta espazio bat eskaintzea, medikuntza garai-kidearen inguruko kapitulu modura.

Azken urteotan medikuntzaren esparruan gertatu diren aurrerapen teknologikoak benetan harrigarriak dira, eta, kasu askotan, ia zientzia-fikziotik eratorriak dirudite. Nire esperientzian bertan islatu da hori: belauneko lesioaren tratamendua ez da izan ohiko esku-hartze estandar bat, baizik eta neurri egindako prozedura aurreratua. 3D inprimaketaren bidez sortutako plaka ezarri didate, nire hezur-egituraren morfologia zehatzera milimetrikoki egokitzen dena. Pertsonalizazio-maila horrek, zalantzarik gabe, sendatze-prozesuaren eraginkortasuna eta zehaztasuna nabarmen handitzen ditu.

Bestalde, errekupezio-fasean, errealitate birtualeko tresnek aukera eman didate nire lesioaren bilakaera modu bisualean, interaktiboan eta ulergarrian jarraitzeko. Ez da soilik informazioa jasotzea; esperientzia horren bidez, nire gorputzaren egoeraz jabetu naiz, tratamenduaren logika ulertu dut, eta, are garrantzitsuagoa dena, nire errekupezioan modu aktiboagoan parte hartzeko gaitasuna garatu dut. Horrela, paziente izatetik, neurri batean, prozesu terapeutikoaren eragile bihurtzen naiz.

Medikuntza modernoaren ekarpena, beraz, ez da dimentsio teknikoan bakarrik kokatzen. Baditu ondorio psikologiko eta sozial sakonak ere. Prozesuaren gardentasunak eta ikusgarritasunak segurtasun-sentsazioa handitzen dute, antsietatea murriztu, eta motibazioa indartzen dute. Pazienteak ez dira jada subjektu pasiboak; informazioan oinarritutako erabakiak hartzeko eta beren osasunaren kudeaketan inplikatzeko aukera dute.

Testuinguru honetan, ezinbestean sortzen da galdera: zer izango litzateke gure bizitza medikuntza modernorik gabe? Eta harago joanez, gaur egungo joera teknologikoak kontuan hartuta, nolakoa izango da medikuntzaren etorkizuna? Litekeena da datozen hamarkadetan tratamenduak are pertsonalizatuagoak izatea, errealitate birtuala eta areagotua erabat integratzea prozesu terapeutikoetan, eta 3D inprimaketak –ez bakarrik hezurretan, baizik eta ehun bizietan ere– jauzi kualitatiboa ematea.

Azken batean, medikuntza modernoaren bilakaera ez da soilik aurrerapen teknologikoen metaketa bat; gizakiaren ongizatea ulertzeko eta kudeatzeko modu berrien eraikuntza ere bada. Nire esperientzia pertsonalak agerian utzi dit aukera horiek guztiak, eta etorkizunari begira, ikuspegi itxaropentsu eta inspiratzailea eskaintzen du: gure gorputza, teknologia eta ezagutza zientifikoa gero eta modu estuagoan lotzen ari diren aroan gaude. ●

**Sondigarbi**  
**GARBITEGIA**

ITURRIGANE, 2 EGUNERO  
635584941 8:00-22:00

**HARATEGIA**  
**ALBERTO**

Arbolantxa, 4  
Tel.: 944 520 825  
48170 ZAMUDIO

**Enaitz**  
**TABERNA**

Ogitartekoak  
Anoak

640 26 84 15  
94 455 42 15  
Garaioitza, 74  
Lezama



1 Andako San Esteban eliza



2 Katadianoko San Pedro eliza



3 Eskolunbe santutegia

IÑAKI OLABARRIETA  
JOSE ANGEL MENTXAKA

## MENDITIK PATXADAZ

# Eskolunbe

Badaude euskal izen batzuk, neskenak, oso erabiliak zirenak euskal izenak jartzea debekatuta zegoenean ere. Aitziber, Idoia, Leire, Irati... Hauek, berez, toponimoak dira, lekuen izenak, baina bertan ermita, santutegi edo antzekoren bat dago eraikita Amabirjinaren adbokazioan. Frankismo garaian, Jose Mari Satrustegi apaiz nafarrak zerrenda luze bat atera zuen, eta jakina, bere burua oso katolikotzat zeukan erregimenak ezin izan zituen debekatu. Arrakastatsuenak Nafarroakoak izan ziren, baina badaude beste batzuk gutxiago erabiliak, Eskolunbe, esate baterako.

**A**rabako mesetara igo, Izarra atzean utzi eta Kuartango bailarara sartu gara. Anda herriko aparkalekuan utzi dugu autoa. Kuartangoko Estazio Megalitikoko panela bertan dago, baina azkenerako utziko dugu berau. Beraz, beste aldera eginez, errepidea gurutzatu eta harrizko eskailerak igo ditugu eliza ikusteko, bolatoki ederra baina itxiaren ondotik pasatu eta basorantz doan pista polita hartu dugu. Landa eder batzuk gurutzatu ditugu behorak eta beraien kumeen artean. Zuhaitz artean, eskuinetara doan pistatik egin dugu aurrera, leku polita da paseorako. Kilometro bi ez dira pasatu Katadiano herrixkaren elizaren dorrea agertu denean. Merezi du bertaratzea. Jentilen iturri bitxia plazatxoan, elizaren aurrean bi kanpai itzel eta atzean leiho erromaniko ikusgarria, aurpegi bereziekin.

Utzi dugun bidexka jarraituz, beste pista zabal batera heldu gara, eta laster erreka oso berezi bat izan dugu aurrez-aurre. Lurzoruko harri geruza horizontalak eskailera eran daude eta ura saltoka jaisten da. Polita da erreka. Landa eder batzuk gurutzatu ditugu jateko mahaien artean eta hortxe dago, Eskolunbe Santutegia da, zuhaitzen artean erdi ezkutatua. Itxita dagoenez, ezin izan dugu erretaula ezaguna ikusi. Eraikinaren atzeko aldeetik jarraitu eta eskuinera egin dugu erreka gurutzatuz. Ur nahikotxo dakarrenez, harri gainetatik kontuz ibili behar izan gara, baina lortu dugu.

Basotik doan estrata zabaletik jarraitu dugu eta une batean eskuinetara eta behera egin eta berriro Katadianorantz egin dugu. Behi granja handi bat pasatuta, herriko garbitokia izandakoaren aztarnak daude. Errepide nagusira heldu eta gurutzatu ostean, Baia erreka harrizko zubitik

zeharkatu dugu. Aurrerago, trenbidea gurutzatu, eta gero, Kuartangoko Estazio Megalitikoa dago. Lau gune ditu, ezkerretara eginez, Gurpide Hegoa trikuharrira heldu gara, jarraian, Gurpide Iparra menhirra eta trikuharrira. Beste aldetik San Sebastian Hegoa eta San Sebastian Iparra trikuharriak. Dena ondo markatuta, ondo zainduta eta ondo azalduta panelen bidez. Bertan ikasi dugu hilobiak zirela, nola uste den egiten zirela, trikuharri handiena egiteko 3.000 tona harri eta lur erabili zituztela, zer aurkitu duten bertan...

Andara heltzea besterik ez zaigu falta, baina badago zer ikusi bidean. Erreka gurutzatzeko Erdi Aroko zubi ederra, esate baterako. Erreka ingurura jaitsi garenean, zubia behetik ikusteko asmoz, zaharberritutako garbitokiarekin egin dugu topo. Ibilbide ederra eta historikoa amaituta aipatu behar Eskolunbe izena dutenak gutxi direla, baina egon badaudela. ●



4 Gurpide menhirra

5 San Sebastian trikuharria


6 Andako zubia

## Ibilbidea

Distantzia: 7,8 km

Desnibel positiboa: 94 m

Eskuratu  
hemen  
ibilbidearen  
track-a



**AmArz**  
ileapaindegia  
Asteartea-ostiralea:  
9:00-19:00  
Laburunbata:  
8:00-13:30  
Urbe plaza, 1 behea  
Zamudio  
944 520 419





WIKIMEDIA / KIZIL

**ESTITXU PÉREZ CASTRO**  
 @txiribita\_mundi

## HERBARIOA

# Mitxoleta

*Papaver rhoeas*. Mitxoletari basa-amapola edo mitxoleta arrunta ere deitzen zaio. Ez da nahastu behar Kaliforniako mitxoletarekin (*Escholtzia californiaca* Chamisso) eta mitxoleta lo-eragilearekin (*Papaver somniferum*). Mitxoleta papaverazeoen familiakoa da, lo-eragilea bezala, baina ez dauka morfina antzeko printzipio aktiborik. Europako zati handi batean, Asia mendebaldean eta Afrika iparraldean dago.

**A**ntzinarotik nekazaritza eremuekin oso lotuta egon da, baina azken urteetan asko murriztu dira herbiziden erruz. Soroetan, landu gabeko lurretan, bideen ertzetan eta errepedetan ikusi daiteke.

### IDENTIFIKAZIOA

Urteko belarkia da, 50 zentimetrora hazi daiteke. Zurtoin iletsua, tentea eta adar gutxiak dauka. Bere hostoak txandakatuak, lantzekatuak eta erdiko nerbio batekin horzduak dira. Bere loreak bakartiak dira, kolore gorri bizikoak, leunak. Lau petalo ditu, orban beltz batekin oinarrian. Iberiar Penintsulan bederatzi bat amapola mota daude. Hauek dira mitxoleta arrunta eta besteak bereizteko ezaugarriak: Fruituaren kapsula obulatu da, ilerik gabea; petaloak gorri-gorriak dira eta orban beltz bat dute oinarrian. Bere lorea handia da, 10 zentimetroraino neurtu dezake.

### BILKETA

Petaloak erabiltzen dira, baita hazidun kapsulak ere. Udaberrian biltzen dira petaloak, eta udan, haziak. Petaloak lore erabat irekietatik biltzen dira, hain gorriak ez diren loreak eta lore txikiak baztertuz. Ahalik eta azkarren lehortu behar da leku bero, lehor eta aireztatu batean. Noizean behin mugitu behar dira. Behar bezala lehortu diren jakiteko, petaloak ezin dira belztu, kolore gorri iluna izan behar dute.

### SUKALDARITZAKO ERABILERAK

Sendabelarra izateaz gain, landare jangarria ere bada. Hosto samurrak (loratu aurretik) gordinek edo egosita hartu daitezke, eta zapore gozoa eta atsegina dute. Petalo freskoak entsaladak, postreak, zopak eta edariak apaintzeko erabiltzen dira, hur zapore apur bat dute. Haziak jan egiten dira, batez ere okindegian eta gozogintzan erabiltzen dira. Entsaladei, zopei eta pureei, galletei, ogiei, jogurtari eta zerealei gehi-

tzen zaizkie. Belar dendetan edo ekologia dendetan erosten ditugun mitxoleta-haziak ez dira *Papaver rhoea*-ren haziak, beste mitxoleta mota bat baizik, amapola urdina deritzona, jatorriz Turkiakoa. Haziak handiagoak eta urdinxkak dira.

### EZAUGARRI MEDIZINALAK

Antitusiboa, sedatiboa, leungarria eta laisaigarria da. Petaloak erabiltzen dira ez-tula baretzeko eta loa errazteko.

### Barne-erabilerak:

- Eztula, asma, bronkitisa...
  - Insomnia haurrengan eta adinekoengan.
  - Antsietatea eta urduritasuna.
- Kasu horietan, infusioa edo xarabea hartu.

### Kanpoko erabilerak:

- Anginak, ez-tul narritagarria eta ez-tuliko mina. Gargarak egin, mitxoleta kontzentratuko infusioarekin eta limoi



WIKIMEDIA

## Landareak batzeko aholkuak

- eta ezti apur batekin.
- Betazalen hantura. Begi bainuak edo konpresak infusioarekin

### Infusioa

Gorria da. Prestatzen da petalo lehorrez beteriko koilarakada batekin ur litro laurden bakoitzeko, utzi 10 minutu eta edan egunean hiru kikara, azkena oheratzean. Infusioa, 4 loreren nahasketa: malba, tusilagoa, katu-oina eta mitxoleta petaloak. Arnasketa afekzioetarako ere erabiltzen da (eztula, katarroak, bronkitisa...), eta Apo-belar, de malba zuri eta boleta petaloak ere gehitu ahal zaizkio.

### Jarabe

Eztula baretu, espektorazioa erraztu eta loa errazten du. Nahastu litro bat ur irakin 65g petalo lehorrekin eta utzi infusio-natzen estalkia gutxienez 12 orduz leku bero batean jarrita. Gero, berotu apur bat eta iragazi, petaloak ondo zukutuz. Neurtu ateratzen den likidoa eta gehitu 150g azukre 100ml bakoitzeko, berotzen jarri berriro, baina irakiten hasi gabe.

Mugitu denbora guztian zirope bat lortu arte. Kontserbazioa hobetzeko, koilarakada bat pattar edo ron gehitu daiteke 100ml-ko. Botilatu eta biltegitatu, hobeto hozkailuan, hobeto kontserbatzeko.

Kafe koilarakada txiki bat 15 hilabete eta 3 urte bitarteko umeentzat. 3 eta 5 urte bitarteko haurrentzako 2 kafe koilarakada. 3-5 kafe-koilaratxo 5-12 urteko haurrentzat. 5-10 kafe koilarakada helduentzat. Hartualdiak egunean zehar banatu behar dira.

### KONTRAINDIKAZIOAK

Mitxoletak toxikotasunik ez duela uste bada ere, ez dago daturik haurdunaldian, edoskitzaroan eta haur txikietan modu seguruan erabiltzeari buruz; horregatik, ez da gomendatzen medikuaren ikuskapenik gabe erabiltzea. Iturri batzuen arabera, dosi handietan mitxoletak logura eragin dezake. Eta kontsumitzen bada, batez ere freskoa, kantitate handitan, hesteetako mina eta urdaileko mina ere eragin ditzake. Latexak ukipen dermatitis eragin dezake. ●

**Orokorrean:** hartu ondo ezagutzen duzuna; hartu neurritz eta soilik lekuan asko badaude; ez eraman dena, utzi beti zerbait; hartu bakarrik erabiliko duzun landarearen zatia; ez atera sustraitik, moztu ondo hazten jarrai daitezen; ez moztu loreen %20 baino gehiago, zuhaitzak edo zuhaixkak badira; hartu bakarrik erabiliko duzuna, geroago itzuli ahal zara, edo beste leku batzuetara joan; ez jaso gune babestuetan edo parke naturalatan.

**Non:** larreetan eta autorik pasatzen ez den bide-ertzetan; goldatu gabeko basoetan; toxikorik erabiltzen ez den ortuetan eta lorategietan; INOIZ EZ areketan, fumigatutako landetan eta ibaiertz kutsatuetan.

**Noiz:** goizean, ihintza sikatu ondoren; hartu hostoak erabiliko ditugun egunean bertan; hartu loreak goizean eta sustraiak arratsaldean; landareak gorde edo sikatzeko, hobe da ilbehera denean jasotzea.

**Materialak:** eskularruak, artaziak, paperezko oihalezko poltsa, zumezko saskiak...

**IZ**  
ILE APAINDEGIA  
946036943  
Txantxapen 42  
ZAMUDIO  
iz@apaindegia.com

**PATXI**  
OSTALARITZARAKO ZERBITZU INTEGRALA  
40 URTE ZUGANDIK GERTU  
www.patxikoop.eus  
f t i n  
Neiber Poligonoa / Etxezarre 4, 48170 / Zamudio / 944 522 581 / info@patxikoop.eus

LIBURUDENDA PAPERDENDA  
**ZAMUDIO**  
EGUNEROKO PRENTSA, SALGAI  
libriariapapeleria\_zamudio@hotmail.com  
Gorbea kalea, 4 · ZAMUDIO · 944 522 910



## SUKALDARITZA

# Amama Sagraren karramarroak

## Adarve kafetegiaren errezeta



### OSAGAIAK:

- Tomate kilo bat
- Kipula bat
- Berakatz bat
- Azenario bat
- Porru bat
- 150g txorizo
- 150g pernil
- Karramarro kilo bat
- Koñak apur bat

### ERREZETA

Moztu barazkiak ahalik eta tamaina txikienean: kipula, berakatz, azenarioa eta porrua. Behin dena moztuta izaterakoan, jarri zartaginean sukaldatzen olio apur batekin. Barazkiak kolorea hartzen doazen bitartean, tomateak zaititu. Behin barazkiak kolorea hartu eta bigundu direnean, gehitu ebakitako tomateak eta koñak apur bat eta utzi

bertain lurrundu arte, zapore gehiegirik ez uzteko. Gero, utzi dena batera sukaldatzen 20-30 minutu inguru. Ondoren, dena irabiatu eta iragazi, eta berriro jarri sutan apur baten.

Beste alde batetik, txorizoa eta pernila txiki moztu eta sutan jarri beste zartagin batean. Txorizoak eta pernilak bere koipea ateratzen dutenean, gehitu karrama-

marroak eta utzi koipearen zaporea hartzen bizpahiru minutuz. Jarraian, gehitu lehen egindako saltsa eta utzi dena sukaldatzen 5-10 minutuz. Denbora horrekin nahikoa izaten da karramarroak dagoeneko egosita saltzen dituztelako. Karramarroekin batera, platerean jartzerakoan entsalada eta patata frijituekin aurkeztu daiteke.

## Adarve kafetegia



Adarve kafetegian mota guztietako pintxoak dituzte goizeko lehen ordutik. Tostadak, opilak, browniak, tartak eta ogi-torrak ere dituzte. Eguerdian eskaintza zabala daukate: bokata, hamburgesa eta plater konbinatuekin. Egunko platera ere izaten dute 8 eurotan. Barikuetan eta zapatuetan, ordea, arroza eta fideua izaten dute.

Astelehenetik eguenera	06:00 - 18:30
Barikuetan	06:00 - 23:00
Zapatuetan	07:00 - 18:30
Domeketan	Itxita

Sollube, 2  
Derio · 946 089 531

## DENBORA-PASAK

### GURUTZEGRAMA

Egunean zauze Txorierriko albisteetaz? Bete gurutzegrama eta ezkutuko hitza aurkitu.

1.											
2.											
3.											
4.											
5.											
6.											
7.											

1. Zein txapelketa irabazi dute Lezamako Pelota Klubeko bi bikotek?
2. Non lehiatu du Beste Bira taldeak Espainiako Maratoi Erdiko Txapelketa?
3. Sondikako zein bidetan egingo dituzte aparkaleku gehiago?
4. Zein da *Lutxi eta zuhaitza* filmeko protagonista larrabetzuarraren abizena?
5. Zein abesbatzak antolatuko du II. Udaberriko Kantaldia?
6. Zelan deitzen da UEMAre azken ekimena?
7. Zein kirolean parte hartu dute bi larrabetzuarrek Euskadiko Selektzioarekin?

### SUDOKU ERRAZA

6			2					
9	4						8	6
	1		4		3	5		
			1	2	6	9		
1			6	3				
	5							3
4		1		8	6	5	7	9
5		8	9					
7		3	5	2	4		6	1

### SUDOKU ZAILA

				5			7	
	9			4				
		4						8
	7	1			2			5
	4					7		6
2		6	4				9	
				8	6			
9		5						
		3		7		2	5	

## MAIATZEKO AGENDA

**1, barikua**

19:30 **Zamudio Kalean: Low Band ZAMUDIO** Leizaola plazan

**2, zapatua**

12:30 **Bizkargi. Memoria eta Antifaxismoa LARRABETZU** Ernaik antolatuta

18:30 **Dantza plaza gidatua, Gorantzaileekin SONDIKA** Ikurrinaren enparantzan

**3, domeka**

**Bizkargi Eguna LARRABETZU**

08:00 **Bizkargira irteera DERIO** Untza mendi taldea. Nagusien etxetik

**4, astelehena**

18:00 **Ezetzaren garrantzia hitzaldia LEZAMA** Guraso elkarte. Musika gelan

**4tik 29ra**

**Olio-pintura erakusketa: Flor de Loto (Belen Soto) SONDIKA** Udal Liburutegian

**6, eguaztena**

18:30 **Txakur eredugarrien inguruko hitzaldia DERIO** Kultur Birikan

**7, eguena**

**Herri txiki, infernu handi programaren grabazioa, publikoarekin SONDIKA** Lekua eta ordua, zehazteke.

**9, zapatua**

19:30 **Sondika Pintxotan: pintxo begetarianoak. Animazio musikatuarekin SONDIKA**

**9-10eko asteburua**

**Derioko jaiak. Elkarteen asteburua DERIO** Ikusi 27. orrialdea

**10, domeka**

19:30 **Derioko 38. mendi martxa DERIO**

**13, eguaztena**

18:00 **Menopausia ongizatearekin bititzea ikastaroa DERIO** Kultur Birikan

**14-17ko aste amaiera**

**Derioko jaiak DERIO** Ikusi 27. orrialdea

**15, barikua**

10:30 **Baserritarren Eguna LARRABETZU** Plazan

**16, zapatua**

09:00 **Irteera familiarra: Oja eta Oja-park LEZAMA** Lezamako eskola

10:00 **Kirolur Emakumeak gailurretan: Berreagara irteera DERIO** Untza mendi taldea. Nagusien etxetik

11:00 **Kuadrilla Eguna LARRABETZU** Plazan

18:00 **Zerua lapurtu dute antzezlana SONDIKA** Katxiporreta. Kultur etxean

19:00 **II. Udaberriko kantaldia SONDIKA** San Juan Bautista elizan

**17, domeka**

07:30 **Deba-Markina, Donejakue Bidea DERIO** Untza mendi taldea. Nagusien etxetik

**20, eguaztena**

18:00 **Menopausia ongizatearekin bititzea ikastaroa DERIO** Kultur Birikan

**22-25 asteburua**

**Zamudioko jaiak ZAMUDIO** Ikusi 17. orrialdea

**23, zapatua**

08:15 **Bizkaiko infernua zikloturista martxa DERIO**

12:00 **Apurtuareren mendeurreneko jaialdia ERANDIOGOIKOA** Ikusi 21. orrialdea

13:00 **Sondika Musikaren hasiera SONDIKA** Zenabit taberna

**24, domeka**

10:00 **Basuraleza. Zaindu zure ingurua DERIO** Untza mendi taldea. Nagusien etxetik

**27, eguaztena**

18:00 **Menopausia ongizatearekin bititzea ikastaroa DERIO** Kultur Birikan

**29-30-31ko asteburua**

**Loiuko IV. Erdi Aroko Azoka LOIU**

**30, zapatua**

18:30 **Dantza plaza gidatua, Gorantzaileekin SONDIKA** Goiri enparantzan

19:00 **Lisistrata 2.0 DERIO** Sutondoan. Gurea Aretoa

20:00 **Querida Agatha Christie antzezlana SONDIKA** Kultur etxean

**31, domeka**

08:00 **Derio-Avril mendia-Bilbo DERIO** Untza mendi taldea. Nagusien etxetik

19:00 **Lisistrata 2.0 DERIO** Sutondoan. Gurea Aretoa

**LOIUKO GAZTE EGUNA****9, zapatua**

13:30 **Poteo musikatua**

15:00 **Bazkaria**

18:00 **Berakatz taldea**

22:30 **Kontzertuak Ganibet Lukiek Bad Sound System**

# ONDO PASA ZAMUDIOKO JAIETAN!



 **ZAMUDIO**  
**Loteria Nazionala**

Leizaola L. plaza, 7  
Tel.: 94 452 09 59  
loterias.zamudio@gmail.com

  
*Alo-ahaindegia*  
M<sup>a</sup> Antonia Llodio TXPI  
TXPI

Txoriariko etorbidea, 6  
Tel.: 94 452 02 70

48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

Errentaren aitortpenak  
egiten ditugu

944 521 328  
606 505 249  
asesoriadiza@gmail.com

Lehendakari Leizaola plaza, 3 behea  
ZAMUDIO



**ASESORIA DIZA**  
Fiskala – Laborala – Kontablea

  
Jaietan be,  
euskara jalgi hadi  
Zamudioko herrira  
  
**LAGATZU**  
ZAMUDIOKO EUSKERA ALKARTEA

  
**TOLDOS TXORIERRI**  
**TOLDOS B. GOYOAGA**

Lona industrialak  
Sareak  
Eguzki-ohialak



Torrelarragoiti ind, P2  
48170 Zamudio  
Tel.: 94 452 12 58  
Faxa: 94 452 07 44  
Gasolindegi ondoan

*PiKoteo Taberna*

KAXOLAK - OLAGARROA  
TXIPIROIAK

LEHENDAKARI LEIZAOLA PLAZA, 6  
48170 ZAMUDIO  
689 213 782

**STIHL**

**100**  
URTE

# PRO

## BATEK BEZALA EGIN

STIHL, ZUREKIN 1926TIK



HIDROGARBIGAILUA

**SET RCA 20**

LEHEN 229 €

**ORAIN 214 €**



ASTIKENE industrialdea, Berezi 23C  
(Bilboko aireportuaren ondoan)  
48160 DERIO BIZKAIA

info@agrojardinastikene.com  
944 540 652  688 633 197

[WWW.AGROJARDINASTIKENE.COM](http://WWW.AGROJARDINASTIKENE.COM)

**ASIM**  
SYSTEM

**AIM**

**AKIM**  
SYSTEM

**APIM**  
SYSTEM

IRAGARKIA